



Rexu URRUTIA

Tafallako

ikastolako zuzendari
saldiastrarra → 25

Elizondoko feriak

Gehigarri berezia → 39-48

BERA → 10

XXV. Lurraren Eguna
urriaren 23an

LEITZA → 28

IV. Mikologialdia
urriaren 19tik 23ra

BAZTAN → 33

Kirikoketa Besta
hilaren 22an Arizkunen

SARA → 37


Uso Besta urriaren
15ean eta 16an



Murrizketen kontra irakasleak grebara deitu dituzte hilaren 27rako

Ez da Nafarroako hezkuntza publikoan sindikatuek deitu duten mobilizazio bakarra. Gobernuak egin dituen murrizketen aurka, ortziralero kontzentrazioak egiten ari dira ikastetxe atarietan eta urriaren 18an eta 20an paroak eta hilaren 25ean manifestazioa ere iragarri dituzte. Sistema publikoa da aldarrikatzen dutena.

ERREPORTAJEA → 4-5



Diana INIESTA

Margolaria eta psikologoa

«Pinturak zure burua
hobeki ezagutzeko
aukera ematen du»

Bartzelona utzi eta
Baztanera etortzea erabaki
zuen duela urte batzuk.
Orain Erratzun bizi da.

ELKARRIZKETA → 3



Amaia Gartzia eta
Nerea Sorondo
Nafarroako txapelkun
arpanean

Urriaren 1ean Igantzin
jokatutako txapelketan,
19 segundoko aldea atera
zioten bigarren bikoteari.

→ 49

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, briak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizitza luzea dute. Baita ere zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota urez jantzi batean... Zeren, manera batera edo bertara, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



Basque Government
Euzko Legebiltzaria



Duela 13 urte ezagutu zuen Diana Iniestak (Bartzelona, 1971) Baztan. Aire zabalean pintura ikastaro bat egitera etorri eta Baztanez eta baztandarrez maitemindu zen. Geroztik

guttienez urtean behin Baztan bisitatzen hasi zen. Eta duela urte batzuk Bartzelonako bizi-modua alde batera utzi eta Erratzura bizitzera etortzea erabaki zuen. Psikologoa ere bade-

nez, psikoterapeuta lanean ere badabil, eta haur eta helduendako margo ikastaroak ere eskaintzen ditu. Berari buruzko xehetasun gehiagorako: <http://dianainiesta.blogspot.com>.

Diana INIESTA | Erratzun bizi den margolari eta psikologo kataluniarra

«Hitzik gabe adierazteko beharra sentituta hasi nintzen margotzen»

G. PIKABEA | ERRATZU

Zer egiten du Bartzelonako emakume batek Erratzun?

Arteari buruzko aldizkari batean, Baztanen aire zabalean pintura ikastaro bat egitekoa zela irakurri nuen duela 13 urte. Ikastaroa egin nuen eta Bartzelonara itzuli nintzen. Ordutik aitzinera, guttienez urtean behin etortzen hasi nintzen. Aldi berean, Bartzelonan La Vanguardia egunkarian hasi nintzen. Ardura haundiko lana zen, eta psikologia ikasketekin tartekatua nuen. Azkenean, lana utzi eta honat etortzea erabaki nuen. Ikasketak akitu eta psikoterapeuta lanean eta pintura irakastle hasi nintzen.

Noiz hasi zinen margotzen?

Hitzik gabe adierazteko beharragatik hasi nintzen margotzen duela 15 urte. Pintura aunitzez ere indartsuagoa da, zure buruarekin barneko elkarrizketa bat eginen bazenu bezala. Zure burua hobeki ezagutzeko aukera ematen du. Zure erritmora, baina koadroarekin elkarrizketan, norbere burua deskubritu egiten da.

Nola definituko zenuke zure estiloa?

Uste dut inpresionismo-tik aunitz duela, trazua baino gehiago kolorea da. Gehiago axola dit sentitzen dudana adierazteak. Egunerokoan, pentsatu eta gero jokatzeko dugu.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Diana Iniesta, aurtan egin dituen margoletako batzuk inguruan dituela.

Arteak, ordea, esperimintatzeko aukera ematen du eta sentitu, esperimintatu eta gero emaitzaren inguruan pentsatzeko aukera. Nire lanak bide horretatik doaz.

Margo ikastaroez gain, psikologo lana ere egiten duzu. Azaldu...

Urriatik maiatzera haur eta helduendako margo ikastaroak eskaintzen ditut, eta 6 eta 79 urte bitarteko ikasleak ditut. Hor ikusi dut helduek erresistentzia gehiago dituztela. Autozentsura, bertzeek guretz zer pentsatuko duten beldurra, hanka sartzeko beldurra... Bertalde, abuztuan aire za-

MARGOAREN INDARRA

«Pintura aunitzez ere indartsuagoa da, zure buruarekin barneko elkarrizketa bat eginen bazenu bezala. Zure burua hobeki ezagutzeko aukera ematen du. Zure erritmora, baina koadroarekin elkarrizketan, norbere burua deskubritu egiten da»

GUSTUKO LANA

«Gauza guti behar dira eta horrek ez du preziorik. Nik denbora behar dut eta horrek ez du preziorik».

balean 6 eta 12 urte artekoendako margo ikastaroa ere ematen dut. Baina psikoterapeuta bezala ere ari naiz eta arteterapia ikastaroa bide horretatik doa. Ez da terapia bat, ez gara gure traumatizazio solasean hasiko eta ez dut inor analizatzeko; tailer hauek birsortzeko aukera ematen dute. Norberak sentitzen duena da garraitzi suena. Arteterapiatik haratago, adierazpen artistikoa deituko nioke. Pertsona bati prozesu batean laguntzea da kontua: musika, literatura, antzerkia edota dantzarekin sentitzen denaz norbere buruare-

kin elkarrizketa egitea.

Etorkizunera begira, zein asmo dituzu?

Baztan-Bidasoko ehiza jardunaldien irudia egiteko eskatu didate eta azaro eta abenduan Bertizen erakusketa irekiko dut. Arteterapiako ikastaro bat ere emanen dut, urrian edo urtarrilean, eta ekainean New Yorkera joanen naiz hilabete baterako, artea ikasteko nazioarteko eskola onenatariko batera. Hurrengo urtean, Bartzelona, Donostia edota Madrilera erakusketak egin nahi nituzke. Halere, helburu nagusia haur eta helduekin lan egiteko begiratzeko ikastea da eta noski, euskaraz ongi egitea.

Zerbait gaineratuko zenuke?

Gustatzen zaizuna egitea ez dela zaila. Sufri-mendua ematen du, baina baita poztasun haundia ere. Nik bi bizitza ditudala erraten dut, bat lehengoa eta bertzea aukeratu dudana. Lehengo prozesu hartan ego-kitzea ezinezkoa zen eta oraingoan uneoro egokitzen ari naiz. Badira une zailak eta maila ekonomikoan ere gogorra da. Hau bokazioz egiten baita, eta ez errentagarria delako. Baina gauza guti behar dira eta horrek ez du preziorik. Nik denbora behar dut eta horrek ez du preziorik. Gustura nago, gustatzen zaidanean ari naizelako.



Hainbat mobilizazio egiten ari dira irakasleak murrizketen kontra. Argazkian Elizondoko institutuko irakasleak ageri dira.

UTZITAKO ARGAZKIA

HEZKUNTZA → MURRIZKETAK SISTEMA PUBLIKOAN

Aurreikusi baino irakasle guttiagorekin hasi dute ikasturtea eskualdeko institutuek

Nafarroako Gobernuak egin dituen murrizketen kontra hainbat mobilizazio egiten ari dira

Bereziki Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan somatu dute Nafarroako Gobernuak egin dituen murrizketen eragina. Ondorioetako

bat 230 irakasle guttiago kontratatu direla izan da. Leitza, Bera, Doneztebe eta Lekaroz-Elizondoko institutueta ere kexu dira.

G. PIKABEA

Ikasturte hasiera polemikoa izaten ari da. Krisia tarteko, Nafarroako Gobernuak aixturak sartu ditu eta aurten, iaz baino %1,5 guttiago inbertituko duela erran du. Sindikatuak, ordea, bertzelako diote: «2010eko aurrekontua 670 milioi eurokoa izan da eta 2011n 635 milioi izanen da.

Beraz, aurtengoa %5,22 tikiagoa da. Murrizketa guztiak batuz, hezkuntza publikoan 2011ko inbertsioa 2008koa baino tikiagoa izanen da; eta urte hartan ikasleen kopurua orain baino %12 tikiagoa zen. 2011n irakasle bakoitzeko inbertsio beramantentzeko 716,8 milioi euro beharko lirateke». Sindikatuen iritziz, «bene-

tako murrizketa %12,8koa izan da».

Murrizketek bigarren hezkuntzan eragin du bereziki, eta eskualdeko institutueta badute horren berri. Joan den ikasturtea bukatu baino lehen, ikasturte honetako irakasle zerrenda prest utzi zuten, baina ekainean murrizketak izanen zirela jakinarazi zieten.

LEITZAKO AMAZABAL INSTITUTUA

Leitzako institutuan, aurreikusi baino irakasle bat guttiago dute ikasturte honetan. 33 irakasle dira gaur egun, eta Pello Zestau zuzendariak azaldu digunez, «estuago ariko gara lanean». Laguntza behar duten ikasleekin egoteko edo zaintza orduetan nabaritu dute murrizketa hori batez ere.

Zestauk kritikatu egin du Gobernuaren jarrera: «publikoaren kontrako neurriak dira murrizketa hauek. Oinarrizkoak diren hezkuntza eta osasun publikoetan ari dira murrizketak egiten eta pribatuan ez dute deus ere ukitu». Egoerarekin konforme ez, eta hilabete honetarako deituak diren mobilizazioetan Leitzako institutuak bat egingen duelakoan dago Zestau.

DONEZTEBEKO MENDAKO INSTITUTUA

Murrizketen ondotik, irakasle bat guttiago dute Donezteben, hau da, hasieran aurreikusitako 28ren ordez, 27 dira. Horrez gain, irakasle bat «berandu» hasi zela ere aipa-

tu digute zuzendaritza-tik. «Lanordu osagarri guttiago ditugu eta horrek zaintzak eta horrelakoak egiteko denbora guttiago dugula erran nahi du», diote zuzendaritzakoek. Horrez gain, zera gaineratu digute: «Gobernuak kanpora begira hainbat plan dituela esaten du, eta oso politikak dira, baina guk ez dugu horiek aurrera ateratzeko bitarteko eta denborarik. Halere, hau ez da oraingo kontua, lehendik dator».

BORTZIRIETAKO TOKI ONA INSTITUTUA

Berako institutuan 62 irakasle hasi dute ikasturtea. Enkarni Peña zuzendariak kontatu digunez, «kopuru aldetik aurreikusitakoa onartu digute, baina batzuek lanaldi murriztua dute eta ikasle gehiago dira. Zaintzak eta gure metodologia berritzeko antolatzen ditugun lantaldeak egiteko zailtasunak izan ditugu».

Hutsune horiei erantzuteko, permutaren sistema paratu dute abian: «irakasleak, ordu edo egun zehatz batean, ezin den duela klaserik eman

aurreikusten badu, ber-
te irakasle batekin kla-
se-ordu hori trukatzeko
saiauko da irakasleak aten-
dituak egon daitezzen».

Murritzketen eragina
somatu dute, baina hale-
re, «zortea» izan dutela
uste du Peñak. Izan ere,
DBHko 4. mailan ikasle
aunitz dituztelako, bertze
talde bat izateko eskubi-
dea onartu die Gobernu-
ak, legeak ere horrela ai-
tortzen baitu. Baina hori
klaseak hasi ziren egune-
ra arte, ez zieten baieztat-
tu. «Lortu dugu eta ho-
rrek arnasa eman digu».

LEKAROEZ-ELIZONDO INSTITUTUA

Kopuru aldetik, 1,6 ira-
kasle guttiago dituztela
azaldu digu Agustín Ola-
be Lekaroz-Elizondo ins-
titutuko zuzendariak.
Neurri berriekin, kontra-
tuak orduka egiten hasi
dira eta euren kasuan 28
orduko murrizketa izan
dute, edo bertzelan erran-
da, 1,6 irakasle guttiago.

ZAINTZAK

«Zaintzak egiteko
denbora guttiago
dugu»

Donezteboko Mendaur
institutuko zuzendaritza

Eskola orduak 17 iza-
tetik 18ra pasatuta, kla-
setik kanpoko lanetan na-
baritu dute eragina: «ba-
tez ere, zaintzak egitera-
koan», dio Olabek. Ber-
zelako murrizketa bat ere
izan dute: « premia haun-
diko obra baterako ere
murrizketak izan dira».


Bere irudiko, Gober-
nuak eraman duen proze-
dura ez da egokia izan:
«hasieran, A plantillare-
kin lan eginarazi ziguten
hauteskundeak gainean
zirela. Alberto Catalan
hezkuntza kontseilari ohi-
ak hauteskunde aitzine-
tik bazekien dena eta lan
eginarazi zigun. Eta ekai-
nean, murrizketen ondo-
tik, dena berrantolatze-
ko erranez etorri ziren».



PROZEDURA

«Gobernuak eraman
duen prozedura ez da
egokia izan»


Agustín OLABE
Lekaroz institutuko zuzendaria



PUBLIKOAREN KONTRA

«Publikoaren kontra-
ko neurriak dira
murrizketa hauek»

Pello ZESTAU
Leitzako institutuko zuzendaria



ETORKIZUNA

«Etorkizuna eraikitze-
ko Hezkuntza Publikoan
inbertitu behar da»

Enkarni PEÑA
Berako institutuko zuzendaria

MOBILIZAZIOAK

Murrizketen kontra,
hainbat mobilizazio egi-
ten ari dira irakasleak: Na-
farroako ikastetxeetan
ortziralero kontzentrazio-
ak egiten ari dira. Horrez
gain, azken orduko alda-
ketarik ezean, urriaren
18an ordu bateko paroa
eginen dute Haur eta Le-
hen Hezkuntzakoek eta

hilaren 20an bigarren hez-
kuntzakoek; urriaren 22an
manifestazioa izanen da
Iruñean; urriaren 25ean
bi orduko paroa eginen
dute guztiek eta 27an gre-
ba eguna deitu dute.

SARAN ETA SENPEREN

Iparaldean ez dabil-
tza hobeki. Azken urteot-
tan hezkuntza publikoko

milaka irakasle lanpostu
kendu ditu Frantziako Go-
bernuak, eta heldu den
urteari begira, gehiago
egin nahi ditu. Murrizke-
ten kontra, irailaren 27an
greba eguna izan zen eta
Sara eta Senperen deia-
rekin bat egin zuten: Sa-
rako eskola publikoa eta
Olhain ikastolak, adibi-
dez, ateak itxi zituzten.

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOAK

Lehen Hezkuntzan murrizketen eragina ttikiagoa izan da

Hezkuntza publikoan egin diren murriz-
ketek ez dituzte bigarren hezkuntza beza-
la ukitu lehen eta haur hezkuntzak. Ia gehie-
nak espero zituzten irakasleekin ari dira la-
nean, ez guttiagorekin, ez gehiagorekin.
Baina hori bai, ordezkapenak berandu aile-
gatu zaizkie. Izan ere, orain, hamabortz
egunetik goitiko bajak baino ez baitira bete-
tzen. Funtzionamendu eta formaziorako di-
rue murriztu zaiela ere aipatu dute.

BAZTAN

Ordezkorik bidali ez, eta ikasturte hasie-
rako hamar egunak sei irakasle falta zituzte-
la pasatu zituzten Urdazubi-Zugarramurdi
eta Baztango herrietako eskoletan. Gaur
egun, 58 irakasle dira hamaika eskoletan.
Elizondoko San Francisco Jabier ikaste-
txean, berriz, irakasle baten ezkontza bai-
mena tarteko, ordezkorik gabe pasatu zi-
tuzten hamabortz egun. Eta horrekin bate-
ra, irailaren 13an tutore batek baja hartu
eta handik bi asteira bidali zieten ordezkoa.

BERTIZARANA-MALERREKA

Irakasle baten baja betetzeko ordezkorik
bidali ez dietelako, ahal den bezala moldatu
behar izan dute Ituren. Gisa berean, Zu-

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Ordezkapenak berandu ailegatu zaiz-
kie, eta funtzionamendu eta formazio-
rako diru partida murriztu egin diete.

bietako bi ikasle Iturengo eskolatik kanpo
gelditu dira. Hamalau ikasle goiti biga-
rren tutorea behar dela dio legediak, eta
Iturengo eskolan Haur Hezkuntzako hama-
sei ikasle egin zuten aurrematrikulazioa,
tartean zubietarrak. Hezkuntza Sailak ez
duenez bi irakasle izatea onartu, Zubietar-
ko bi ikasle horiei Doneztebera joatea da-
gokiela erantzun du. Bertzelako, Eratsungo
eskola itxi egin dute eta oraindik deus erran
ez badute ere, beldur dira heldu den ikas-
turtean Saldiasen ere gauza bera gertatu-
ko ez ote den. Izan ere, aurren sei ikasle
izan arren, hurrengo ikasturtean lau geldit-
uko dira eta Eratsunen laurekin itxi dute.
Eta Donezteboko eskolan, bere aldetik, ira-
kasle baten ezkontza baimena bete gabe
gelditu da eta ordezkapen bat aste bete be-
randuago egin zieten.

BORTZIRIAK

Arantzan eta Beran ordezkapenekin atzera-

penak izan dituzte. Arantzan, ikasturtea
hasi eta hiru astez irakasle baten faltan egon
ziren, ordezkorik gabe. Beran, irakasle batek
abuztu erdialdera baja hartu eta tutorea
izan arren, irailaren 12ra arte ez zuten or-
dezkorik bidali. Lesakan eta Etxalarren, or-
dea, normaltasunez hasi zuten ikasturtea.
Igantzin, tutore bat gehiago nahi zuten, bai-
na Gobernuak ez die onartu. Hala, hiruga-
rren zikloan bi talde izan ordez, bakarra
dute. Ordezkapenekin ere izan zuten ara-
zoren bat, irailaren 9an bidali baitzuten ira-
kasle bat eskolara, kurtsoa hasia zela.

LEITZALDEA

Aresen arazorik gabe hasi dute ikastur-
tea, baina irakasleak formazio ikastaro bat
egitekoak ziren eta zergatik ez badakite ere,
ez dutela eginen jakinarazi diete. Goizue-
tan eta Leitzan bajak bete gabe pasatu du-
te ikasturte hasiera. Goizuetan hiru baja
bete gabe egon ziren, eta irakasle eskola-
ra itzuli eta gero bidali zizkieten ordezk-
koak. Bertzelako aldaketak ere badituzte:
bertsolaritza kendu egin diete, eta, aldiz,
ingelesko lektorea bidaliko diete. Leitz-
ko eskolan, azkenik, lehenengo bi asteak
bi baja bete gabe joan zitzaizkien.



Nire txanda
Ruben GARATE

Feria zoriontsuak

Urriroan sartu gara, usoen hilabetea. Gure inguruko oihanak kolore harrigarriak tindatzen direneko hilabetea... gorriak, laranja, horiak edo eguzkiak jotzen duenean itsutzen zaituzten urre-kolore horiek. Elizondoko feria ezagunen hilabetea ere ailegatu da, bailerako eta inguruko bizilagunak elkartzen garen eguna, aziendak ikusi nahiz elikagaiak edo bertzelako tresnak erosteko. Nork ez du inoiz baratxuriak, guardasola edo turroiak ferietan erosi? Denak buruarekin baietz egiten ariko gara, urte batean edo bertzean gauza horietakoren bat gure poltsan erori izanen baita, seguru, hiruak ez badira! Beraz, aurten urriaren 28an Elizondotik pasatzen baldin bazarete eta xokoren batean norbait mazapanak edo gisako zerbaiz saltzen ikusten baduzue... ba eros ezaiozue zerbaiz, ziur ateratzen duten dirua helburu on baterako izanen dela. Agur bana eta feria zoriontsuak izan!

«Nork ez du inoiz baratxuriak, guardasola edo turroia ferietan erosi?»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Gerrikoa eta txotxa

Gerrikoa estutu beharko dugu! –agindu digu andereak, otarrainxka, abakando eta bixigua, ardo zaharrez ongi bustita bazkaldu ondotik. Hortzak garbitzeko txotxa eskatu duenean etorri dira kontuak. «Ez dago palillorik, errekorre garaian gaudel!» erantzun diote. «Hau lotsagaria da!» egin du marmar andereak, hurrengo *ajustea* iragartzeko BMW auto ofizialera sartzerakoan.

Nabarmentzekoak



Jon ABRIL
UEMAko zuzendaritza



Edurne ELIZONDO
Intsumisioaz liburua



Hasier LARRETxea
Poema liburu berria

UEMAko zuzendaritza berria aukeratu zen urriaren 1ean. Berako Aralarko zinegotzia izanen da udal hauteskundetan izandako emaitzaren arabera banaketa izanen duen batzordean.

Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian liburua aurkeztu du Berriako kazetari beratarrak. Testigantzak bildu ditu, esperientzia pertsonalak, 40 elkarrizketa baino gehiagotan.

Duela 29 urte Arraiozen sortu eta aspaldi honetan Madrilén bizibidea duen Hasier Larretxea Gortari olerkariak *Atakak* poesia liburu argitaratu du Alberdaniaren eskutik.

Atzera begira → 2001.10.18 / TTIPI-TTAPA 312. zbk



Senpereko Zaldubi ikastolak 30 urte bete zituen

1971n ireki zen Senperen Zaldubi ikastola. Beraz, duela hamar urteko TTIPI-TTAPAn 30. urteurreneko ospakizunen berri eman genuen. Ordurako, Senpereko 130 familietako haurrak pasatuak ziren ikastetxetik, Beronika Zamora erakasleak aipatu zigunez. Herrikoak ez ezik, Sara, Zuraide eta Urdazubitik ere etorri izan zirela adierazi zuen, 1973tik erakasle zenak. Lehenik bakarrik Ama Eskola zen, 1990eko hamarkadan Lehen maila ireki zen. «Haurrak orain 10-11 urterekin ateratzen dira, gehienak Ziburu edo Kanboko kolegioetara Seaskako sisteman segitzeko» jakinarazi zigun Zamorak.



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainza, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joana Guerediain...

Fundazioaren Presidentea Pello Apeztebea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiako Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leitza	15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Emakumeak plaza erdira

Mikel TABERNA Kapi

1 991ko martxoan, Nafarroako bertsolarien txapelketan, gai hau atera zen kartzelako lanean: «*Saiora ailegatzean, ohartu zara zu ez gainerako bertsolari guziak emakumezkoak direla*». Harekin bertsolariei eta ikusleei ustekabea eman nahi genien, denbora hartan harrigarria baitzen horrelako zerbaite gertatzea. Hurrengo urtean hasi zen Estitxu Arozena; geroxeago Amaia Telletxea eta Estitxu Fernandez... Hogeitau urte bertzetik ez da pasatu! Orduan arraroa edo pentsaezina zen emakume bat jende aitzinean bertso kantari ikustea! Bertsolaritzan ez eze, gainerako eremuetan ere izugarritzko pausoak eman dira emakumearen eta gizonaren arteko berdintasunera bidean: ofizioetan, unibertsitatean, politikan, etxean... Hala ere, oraindik aunitz falta da eskubideetan denak parean egoteko.

Konparazio batera, ni harritu egiten naiz urtero, herriko bestetako egun printzipalean, gizasemeak bakarrik ikusten ditudanean, protagonista nagusi, karrika nagusian edo plaza erdian; eskopeta nahiz makila bizkarrean, edo esku hutsik, batzuk desfilatzen eta bertzeak dantzatzen.

Ez zait iruditzen hor ageri denik gaur egun gure gizartea nolakoa den, ezta gehienok nola nahi genukeen izatea ere. Nola liteke horretaz ez ohartzea Udala edo herriko bestak prestatzen dituen batzordea?

Emakumea plaza erditik baztertuta egon da denbora luzean. Eta bakarren batek inoiz kontsegitu badu toki hori bereganatzea, gero historia eskribitu dutenek isilik gorde dute. Hasmentakora bueltatuz, ez ote da orain baino lehen emakume bertsolaririk izan paraje hauetan?

Ezagunak dira Bilintxen (1831-1876) bertso batzuk, emakume bertsolari bati zuzenduak. Hona lehenbizikoa: «*Aspaldiyan Joxepa famatua zeunden / gu berriz ikusteko desiota geunden; / Ondarrabi aldiyan aditzen genduen / dama bertsolari bat nola bazeguen / zeñak Euskal-erriyan parerik etzuen*».

Nor ote zen abizenik ez dakigun Joxepa hura? Bertsotan, gizonak bertzerik aritzen ez zen tokian! Orduan ere emakume balienteak Hondarribian! Ondotik etorri direnentzat bide egiten...

«Harritu egiten naiz urtero, herriko bestetako egun printzipalean, gizasemeak bakarrik ikusten ditudanean, protagonista nagusi, karrika nagusian edo plaza erdian; eskopeta nahiz makila bizkarrean, edo esku hutsik, batzuk desfilatzen eta bertzeak dantzatzen»

Zer ez dugu ulertu?

Joseba URROTZ

Badira urte mordoak gure eskualdean zabor edo hondakinen bilketa bereiztua egiten hasi zela, eta itxuraz, oraindik ez dugu ulertu zer eta zergatik egin behar den.

Lau ontzi mota daude hondakin horiek biltzeko: beirarendako, kartoia eta paperarendako, ontziendako eta bertze bat aurreko horietan sartzen ez direnendako. Bai, hau ez da berria, eta nik banuen uste jende aunitzek errespetatzen zuela bereizketa hori, baina ikusi dut ez dela hala, ezta guttiago ere! Birziklatzeko gai ez diren gauzak bota behar diren ontzi berde gurgildunara botatzen ditu jende gehienak gauza guztiak! Kristoren zerrikeria egoten da kontenedore horietan, baina ez dugu ikusten edo ikusi nahi, estalkia ideki, barrenera bota eta alde egiten dugu: hor konpon daitezela, norbaittek lekutuko du. Hori al da pentsatzen duguna? Sekulako usaina botatzen dute, ustelkorrak diren gauzak botatzen direlako, aunitzetan poltsarik gabe, haragia, animaliak, ontzi, paper, kartoi, belarra, arropa, eta asmatzen ahal ditugun gauza guztiekin nahasketa

eginda. Hori dena gero kamioi batek hartu, Iruñeara eraman, eta animalia-ko pila batean botatzen du. Ez al da txorakeria? Kontenedore urdin eta horietan pixkanaka-pixkanaka zerbaite biltzen da, berdeetan, ordean, toneladak, nonbait lekua ere behar harko da!

Erosketa egiten dugunean, erosten dugun gehiena hondakina da, plastikoa, metalak, eta abar, ederki ordainduta gainera, alegia, zaborra erosten dugu. Ez zaigu axola denda urrutitako badago, hori bai, kontenedorea etxetik hurbil nahi dugu eta Mankomunitateari ordaindu beharreko tasa garestia iduritzen zaigu. Ez al litzake zuzena dendan hainbertze ordaindu duguna gainetik kentzeagatik berdin ordaintzea?

Benetan larria deritzot, erran bezala, zer ez dugu ulertu? Ez al zaigu hamaika aldiz azaldu nola erabili behar diren hondakinak? Niri benetan, utzikeria saio galanta iduritzen zait zakarrontzi berdera dena botatzea, seguraski jakinda ez dela zuzena.

Aldaketak datoz hondakinen bilketa sisteman, seguraski prezioaren igoera ere bai, ea behingoz ohartzen garen egin beharrekoaz, edo multak behar ditugu ulertzeko?

«Erosten dugun gehiena hondakina da, plastikoa, metalak... ederki ordainduta gainera, alegia, zaborra erosten dugu. Ez zaigu axola denda urrutitako badago, hori bai, kontenedorea etxetik hurbil nahi dugu eta Mankomunitateari ordaindu beharreko tasa garestia iduritzen zaigu»

Irakurleak mintzo

Murrizketak Nafarroan

Koldo SAENZ (LAB)

Murrizketa garaiak dira. Gobernuak aixturak hartu eta han eta hemen murrizketak egiten ari dira. Murrizketak, ordea, ez dituzte edozein alorretan egiten: zerbitzu sozialetan eta zerbitzu publikoetan egiten ari dira murrizketak, makroproiektuentzako eta beraien interesen arabera alorretarako diru laguntzak bere horretan mantenduz.

Aurreko ikasturtean langileok pairatu behar izan genituen lan erreforma, pentsioen erreforma eta negoziazio kolektiboaren erreforma. Kurtso honetan, ordea, nola ez, Nafarroako Gobernuak aitzindari izan

nahi du murrizketen lasterketan eta aurreratu berri du ia 300 milioi euro murriztuko dituela.

2008an hasi ginen krisi ekonomiko honekin ERE-ekin, kaleratzeekin eta abar. Nafarroan langabetuak 45.000 pertsonaizatera ailegatu zirelarik. Bitartean Nafarroako Gobernuak 2010ean Osasunbidean 700 lanpostu suntsitu zituen, eta 230 hezkuntza publikoan. Hau horrela izanik Nafarroan ez dago inolako arazorik dirua bertze gauzetarako erabiltzeko; Opus Dei finantziatzeko, AHT-a eraikitzeko, Navarra Arena bezalako makroproiektua eraikitzeko edo segurtasun hirian dirutza inbertitzeko.

Adibiderik garbiena eta mingarriena AHTrena da. Nafarroan AHTren 8,5 km eraikitzeko 30 milioi euro gatatuko

dira eta diru horrekin Osasunbidean mila langile kontratatu daitezke edo 0-3 urte bitarteko hezkuntza sare publikoa eta doakoa eta unibertsitatea ere doakoa izan zitekeen. Honez gain, diru horrekin ere zahar etxe publikoetan 1.312 lanpostu gehiago sor daitezke.

Adibide hauekin argi dago arazoa ez dela dirurik ez dagoela, diru ho-



Bota bertsoa

Asier SARAGUETA (Berako bertso eskola) • Doinua: Haurtxo txikia

Lurraren Egunak 25 urte

Lurraren Eguna gainian dugu, kaixo, hola eta alo! harekin batin ekartzen dittu horrenbertze gauza xalo: Gazta ta sagardo lehiaketak, zurgin, barazki ta talo. Hoitabortz urte bete dittu ta iñ diezaiozun txalo.

Lurraren eguna jaiotzeko, zenbat bilera mantendu. Hastapeneko hoiek eduki zituzten mila endredu. Horregatik gaur atzoko hoiek behar dittugu omendu, biharko Lurraren Egunakuk hauek behar dute eredu.

ri zertan erabiltzen den baizik. Argi dago Gobernu ezberdinek eta kasu honetan UPN-PSN gobernuak erabaki politiko bat hartu dutela sare publikoa suntsitzeko eta ongizate estatua bertan behera uzteko.

Hau ez da langile publikoen arazo laboral bat, jendarte osoari eragiten dion arazo bat baizik. Horregatik irakaskuntzako langile nahiz

gainontzeko agenteek burutuko dituzten mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dugu; heldu den urriaren 18, 22 eta 25ean lan uzteetatik hasi eta urriaren 27rako iragarritako dagoen grebaraino. Auniz dago jokoan mobilizazio hauetan. Beraz, atara gaitzen kalera bertelako politikak aldarrikatzera. Aditu gaitzate!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
 Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
 Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

MERCHÉ
MODA HOMBRE
 Sempino Majía, 11
 20302 IRUN
 T. 943 612 626

CAPELETTI
 Modak
 Mendiko Markaketa Zentroa
 20302 IRUN
 T. 943 624622



Prentsatik bildutakoak



«Meniskoa hautsita ebakuntza-gelatik pasatu naizen lehenbiziko aldia izan da. Profesionaletan dararmatzadan lauzpabortz urteotan sekula ez nuen deus ere izan. Ez dut beldurrik pasatu, baina pixkat urduri nengoan (...) Enpresak binakakoa jokatzeari nahi du eta niri ere gustatuko litzaidake, baina zaila ikusten dut. Bi hilabeteko baja erran didate».

Julen SAN MIGEL
Doneztebeko erremontista
D. VASCO, 2011.09.29



«Bertzelako inolako borroka ez du lortu gizartean intsumisioak lortu zuen babesa eta oihartzuna. Mundu guztia ados zegoen intsumisioekin, dena zuten alde (...) Guztia defendatzeko desobediencia zibil ez bortitza aukeratu zuten. Eta gainera, umorez eta irudimena erabiliz egin ohi zituzten protestak. (...) Gizarteak ahortzi egin du intsumisioaren borroka».

Edurne ELIZONDO
Berako kazetaria
BERRIA, 2011.10.02

11 galdera labur

Nor dugu Idoia Gillenea?

34 urteko emakumea, bere bertuteak eta zailtasunak dituen. Eten-gabe aldatzen eta ikasten ari dena. Umore onekoa eta bere buruari irri egiten duena.

Elizondon bizi den beratarra ala Beran sortutako elizondarra?

Beran sortu baina baztandarra sentitzen naiz.

Mendia, bizikleta, eskia... Probatu dituzun kirolen artean zein duzu gustukoena?

Mendia da gehien gustatzen zaidana baina bizikleta eta eskia zenbat eta gehiago probatu, orduan eta gehiago maite.

Kirola, asteroko kontua edo noizean behin egiteko?

Asteroko kontua eta gustura egiten dut.

Kirolaz aparte, baduzu bertze afiziorik?

Musika aditu eta abestu.

Bidaia bizi bizi duzun tokirik politena?

Na Pali Coast Kauaien. Hawaien. Leku ederra, esperientzia bitxia, eta konpainiarik

hoberena.

Eta oraindik bisitatu ez duzun eta gustura bisitatu zenukeen toki bat?

Zelanda Berria.

Baztango txokorik ederrena?

Irlintziko peñak.

Osasun publikoan murrizketak iragarri ditu Gobernuak. Mundu horretan zabilazanez, somatu duzu horren eragina?

Ordezkapenak ez dira betetzen, honen eraginez ezin dugu zerbitzua behar den bezala eman. Gainera, lankideen arteko giroa kazkartzen da lan handia eta batzuetan delikatua dugulako.

Zer da zure lanetik gehien gustatzen zaizuna?

Behar bereziak dituzten haurrekin lan egiten dut, batzuk komunikatzeko arazo handiak dituzte eta momenturik politenak hori lortzen dutenean dira.

Amets bat?

Kontatzen baldin badutagian ez dira bete-ko eta...




Idoia GILLENEA → Elizondoko gaztea

Udazkenean hostoak erortzen dira...

baina ez dadila zure ilea erori

Galdetu gure aholkua
BADITUGU SOLUZIOAK



Mikroskopiaan ikusitako ilea



ORDUTEGIA

astelehena, asteartea
ortzeguna, ortziraia

09:00-17:30

asteazkena

15:30-19:00

larunbata

08:00-13:00

Bidasoa, 8 BERA
T. 948 63 01 77

www.peluqueriayogan.com

BERA

KULTURA → GURE TXOKOA ELKARTEAK ANTOLATUTA

Mende laurdena beteko du urriaren 23an egingen den Lurraren Egunak

Bezperan ere
ekitaldiak izanen
dira

TTIPI-TTAPA

Ez guttiago, ez gehiago. Aurten mende laurdena beteko du Lurraren Egunak. Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, urriaren 23an izanen da, baina bezperan ere izanen dira ekitaldiak.

URRIAK 22, LARUNBATA

- 15:30ean Lizuniagako igoera.
- 18:30ean *Baserriak* argazki erakusketa Labiaga Ikastolan.
- 19:00etan barazkiopil lehiaketa eta trikitilariak.

URRIAK 23, IGANDEA

- 09:30ean lehiaketarako barazkiak, gaztak eta sagardo botilak bilduko dira Ricardo Barojan.
- 10:30etik aitzinera eskulangileen azoka eta barazki erakusketa.
- 11:00etan Bortzirietako gasna lehiaketa eta Berako trikitilariak.
- 12:00etan sagardo lehiaketa. Musika eskolako musikarien eta Bandaren karrikabuelta.
- 15:30ean Zirika Zirkusen ikuskizuna Altzaten.
- Bitartean, zaharretxean eskulan erakusketa eta Kuxkuxtu txaranga.
- 17:00etatik aitzinera:

Gure Txokoako dantzarien saioa, arpana txapelketa, sari banaketa, enkanteak, bertsolariak eta Trikidantz taldearekin dantzaldia Altzaten.

- 18:15ean pilota partidak Eztegarra frontoian.

Ehiza eta Arrantza Elkartea

Ehiza eta Arrantza Elkarteak zuzendaritza berritu du eta orain lehendakaria Jose Lorenzo Jaurena da, lehendakariordea Miguel Angel Martinez, idazkaria German Castillo, diruzaina Matias Tellexea eta bokalak Ion Dozagarat, Rufino Dozagarat, Igor Ordoki, Joseba lantzi, Fernando Etxegarai, Jabier Alzuguren, Asier Lazkano, Patxi Torres, Jose M^a Mitxelena eta Pruden Kiroga.

Edurne Elizondoren azken lana

Euskal Herri osoko intsumiso, hauen senide, garaiko epaile eta abokatu en esperientziak jasoz, liburua kaleratu du Edurne Elizondo herritarrek, *Ez dugu nahi. Intsumisioaren ahotsak Euskal Herrian* izenburupean. Gatuzain Txalapartarekin argitaratu du, eta 40 elkarriketa baino gehiago egin ditu.



Ba al zenekien...

Martiko enpresa Basque Culinary Center Fundazioaren patronatuko kidea dela? Zentroa Donostian dago eta Europako lehenengo gastronomiako goi mailako ikasketa zentroa da.



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

Gaztetxoek erakustaldia Dantzari Ttiki Egunean

Gure Txokoako dantzari gaztetxoekin batera, Sara, Ibarra eta Andoaingo taldeak elkartu ziren irailaren 24an egin zen Dantzari Ttiki Egunean XVII. edizioan.



UTZITAKO ARGAZKIA

220 lagunek parte hartu dute Mendi Bizikleta Ibilaldian

Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, irailaren 25ean egin zen Mendi Bizikleta Ibilaldia XIX. edizioa arrakastatsua izan zen. Hiru zirkuitu izan ziren aukeran: 33 kilometrokoa 157 lagunek aukeratu zuten eta Nestor Gonzalez izan zen lehenbizikoa, 20 kilometrokoa 27 lagunek egin zuten eta Luis Mariezkurrena izan zen bizkorrena eta gaztetxoetan (10 kilometro) Unai Iparragirre herritarra izan zen 36 parte hartzaileen artean azkarrena. Katea Bikek emandako bizikletak Iñaki Rodriguez eta Jokin Lopezentzat izan ziren eta Larun Haizpe Merkatarien Elkarteak emandako sei erosketa bale ere zozketatu ziren. Gure Txokoako zuzendaritzak eskerrak eman nahi izan dizkie kolaboratzaileei, eta batez ere, 25etik goiti boluntarioei.



UTZITAKO ARGAZKIA

Dornakuko auzotarren besta

Ohi bezala, Mesedeetako Andre Mariaren besta ospatu zen irailaren 25ean Dornaku auzoan. Goizean kanperan egindako mezan aurten hildako Balkezeneko Roxari Irazoki Matxikote izan zen gogoan eta ondotik hamaiketako egin zuten.

LESAKA

BERTSOLARITZA → TOPAKETAK

Euskal Herriko bertso-eskolen topaketak herrian eginen dira azaroaren 12an

Bertso-poteoa, bazkaria, bapateko saioa eta Oskar Estangarekin dantza eta kantua izanen dira egitarauan

Aitor AROTZENA

Euskal Herriko bertso eskolen topaketak azaroaren 12an ospatuko dira herrian. Beeeeg Eguna izenburupean eginen den ospakizunaren egitaraua goizeko 11:30ean hasiko da, partaideak Arrano ostatuan elkartzean. Eguerdian bertso poteoa eginen da, 14:00etan bazkaria izanen da Lindurrenbor da sagardotegian eta bazkalondoan bertso jarriak eta sorpresak izanen dira. 19:00etan bapateko saioa eskainiko dute Zialdoan Alaia Martin, Xabier Silveira, Iraixe Ibarra eta Julen Zelaia bertsolariek, Egoitz Aizpuru eta Iker Iriarte gai-jartzaileen erraretara. 22:00etatik ai-

tzinaera, Atxaspi ostatuan Oskar Estangarekin dantza eta kantua izanen da. Bortzirietako Bertso Eskolak, dena den, egitarau hau «espontaneoei esker deskuadratzea» espero du eta bertsoak laguntzeko «panderoak, alboak, bonboak, arpak eta norberaren instrumentuak onartzen dira».

Kultur Etxeko lanak azaroaren 28an hasteko asmoa

Herriko Etxea prest dago kultur etxeko eta liburutegiko lanak azaroaren 28rako hasteko. Horretarako, lanen esleipena lehenbailehen egiteko asmoa azaldu du. Hain zuzen, hori da Espainiako Gobernuak onartua duen 3,6 milioi euroko dirulaguntza emateko jartzen duen baldintza, lanak aurten hastea.

Dena den, oraindik orain diru hori ziurtatuko duen ebazpenaren zain daude Herriko Etxean eta Nafarroako Gobernuarekin ere kontaktuan daude, nahiz eta oraindik ez duten bile-



UTZITAKO ARGAZKIA

Presoak lantokietara itzultzea eskatu du LABek Arcelorren

Arcelor Mittalek Lesakan duen lantegian Arcelor Mittal Lesaka eta AMDS Processing-eko langileek elkarretaratze bat egin zuten irailaren 30ean, Euskal Presoen eskubide zibil eta politikoak aldarrikatzeko, LAB sindikatuak buruturiko ekimenean. Guztira 50 langile inguru elkartu ziren.

Hautetsien ordainsariak


Udalak erabakita-koaren arabera, alkateak dedikazio osoa izanen du eta horregatik 23.800 euroko soldata garbia izanen du. Oso-ko bilkuretan parte hartzeagatik 75 euro ordainduko zaizkie zinegotziei, eta batzordeetan parte hartzeagatik 25 euro batzorde buruari eta 10 euro gainerako zinegotziei. Gainerako bileretan parte hartzeagatik 20 euro ordainduko zaio zinegotzi bakoitzari. Alkateari ez zaizkio dieta hauek ordainduko.

San Fermin elkartearen Eguna

Urriaren 21ean ospatuko du San Fermin erretiratuen elkarteak bere eguna. 12:30ean hildako bazkideen omenez meza izanen da eta ondotik omenaldia eskainiko zaie aurten Diamantezko eta Urrezko Ezteiak ospatzen di-

tuzten senar-emazteei eta 85 urte betetzen dituzten bazkideei.

60 urte ezkondu-rik bete dituzte Zelaikobordako Santiago Zapirain eta Avelina Altzugaraik, eta 50 urte ezkondu-rik Ricardo Alava eta Julia Zaportak eta Salvador Altzugarai eta Natividad Larraldeak. Hamahiru bazkidek bete dituzte aurten 85 urte: Santiago Zapirain, Felipe Mendegia, Carmen Txoperena, Angelita Mitxelena, Manuela Ubiaria, Maria Luisa Pellejero, Pedro Lasaga, Juan Ramon Ordoki, Federico Txoperena, Mercedes Zabalozuazola, Juana Leiza, Miguel Mikelajauregi eta Manuel Loarte. Omenaldiaren ondotik, Etxalarko Bentara bazkaltzera autobusean joanen dira eta bazkalondoan, urtean egiten diren lehiaketa ezberdinak irabazleei sariak emanen zaizkie eta musika izanen da, berriz ere herrira autobusean bueltatzeko.



ETXALAR

OSPAKIZUNAK → EKITALDIAK ASTEBURU OSOAN

Igande honetan ospatuko da Usategietako besta

Herriko gazteek bezperatik hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Irune eta Itsaso

Etxalarrentzat eguna haundia izaten da Usategietako Igandea. Aurten, hala ere, bezperatik zenbait ekitaldiz gozatzeko aukera izanen da herrian.

URRIAK 15, LARUNBATA

- 17:00etan mus txapelketa frontoian. Apuntatzeko alde zurretik frontoian bertan.
- Bitartean artisau postuak frontoian ikusgai.
- 18:30ean *Xentimorik gabe* umorezko antzerkia Kultur Etxean Ramon Agirre eta Inazio Tolosaaktore ezagunekin.
- Ondotik, sagardo eta pintxo dastaketa frontoian txalapartaz lagunduta.

- Gero, gazte afaria La Basque jatetxean.
- 00:30etik aitzinera kontzertuak plazan: Legez kanpo, Scapando eta Ingo al deu? taldeekin.

URRIAK 16, IGANDEA

- Goizetik, nahi duenak, ohitura den bezala, urteroko itzulia egiteko aukera izanen du Usategietan barrena.
- 18:00etatik 21:30era dantzaldia Egan taldearekin.
- Arratsaldean ostatua paratuko du frontoian Altxatak.

Bisita gidatuak Usategietan

Aurten ere Usategietan bisita gidatuak antolatu dira ehiza tradiziionala nola egiten den erakusteko. Urriaren 1etik azaroaren 20ra arte izanen dira eta prezio hauekin: pertsonako 4 euro eta taldeetan 3 euro pertsonako. Aitzinetik erre-



ARGAZKIA: JULEN ZUBIETA

Herriko Ostatuko mus txapelketa

Irailaren 17an Herriko Ostatuan egin zen mus txapelketan 16 bikotek parte hartu zuten. Irabazleak Ibai Gallardon eta Jon Ibarra izan ziren eta bigarrenak Xabier Etxarte eta Aitor Telletxea. Lehenengoek Elgorriagako bainuetxean zirkuitua eta bazkaria irabazi zuten eta bigarrenak, berriz, txanpain botila bana.



ARGAZKIA: MAITE GOIENETXE

Etxalarko trikitilariak Donostian

Irailaren 21ean Etxalarko trikitilariak Donostiara joan ziren Zinemaldiaren barne *Aktibista* filmaren promozioa egiteko. Film hau hemendik urte batera estreinatuko da. Hasteko, kalejira bat egin zuten Kursaalera eta ondotik bi pisuko autobus batean kontzertua eskaini zuten.

serba egin behar da 690 267756 telefonon.

Kultur Egunak

Urrian hainbat ekitaldi izanen dira Kultur Egunen barne. Urriaren 7an haurrentzako malabare

tailerra egiteko azen plaza. Urriaren 14an Aire ahizpen kantaldia izanen da Elizan 19:00etan, eta ondotik, piano eta txistu kontzertua izanen da elizan. Urriaren 21ean txistu kontzertu didakti-

koa egingen da Kultur Etxean 15:00etan; hilaren 22an 21:00etan bertso afaria egingen da Herriko Ostatuan eta ondotik, Lesaka eta Leitzako bertso eskolen arteko desafioa jokatu da.



DRAIN: Albistur, 63B-an LESAKAN

ainhoa estilista

ORDUTEGIA

Asteartetik ostiralera: 09:30-13:30 | 16:00-19:00

Larunbatetan : 09:00-14:00 | Astelehenetan itxia

T. 696 125 001

Urriaren 18an irekiko dugu

IGANTZI

OSASUNA → KONTSULTAREN PROIEKTUA

Medikuaren kontsulta haunditu beharrean berria egitea proposatu du Udalak

Oraingo kontsulta haunditzeko emandako dirulaguntzari uko egitea erabaki du

TTIPI-TTAPA

Medikuaren kontsulta berria egiteko asmotan dabil Udalak eta horrekin batera, Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendariak oraingo kontsulta haunditzeko eta eraberritzeko emandako dirulaguntzari uko egingen dio.

Bere garaian, udalarkitektuek medikuaren kontsulta haunditzeko eta eraberritzeko obraren memoria egin eta Vianako Printzea erakundera bidali zuten eskaera. Hauen txostena, ordea, kontrakoa izan zen eta udal ordezkariak Osasunbideko arduradunekin gaia aztertzeke bilea egin zuten.

Udalaren irudiko, «onartutako proiektuarekin edo bertze alternatibarekin gutti haunditu-

ko litzateke eraikuntza eta beharrak haundiagotak dira. Horrela izan litezkeen zerbitzu guztiak ez lirateke sartuko haunditze honekin». Lekua «ttikia» geldituko dela azpimarratu dute Udaletik eta horregatik proposatu da «obra hau ez egitea eta kontsulta berri bat egiteko pentsatzea».

Hala, oraingo kontsulta haunditzeko emandako dirulaguntza bertan behera geldituko litzateke eta hurrengo dirulaguntza deialdian medikuaren kontsulta berria egiteko partida bat gordetzeko eskatuko dio Osasunbideari.



ARGAZKIAK: A. AROTZENA

Bukatu dira bestak

Giro eta eguraldi ederrarekin joan dira aurtengo sanmigelak ere. Adin guztietako jendeak izan du ongi pasatzeko aukera eta orain hurrengo urtekoen esperoan egon beharko da. Bestetako ekitaldirik jendetsuena, ohi bezala, herri kirol saioa izan zen -ikus! argazkiak-.

Bake epailea


Udalak bake epaile titularra izendatzeko deialdia egin ondotik, hiru interesatu aurkeztu ziren. Eskaerak aztertuta, Udalak Antonio Lizardi Etxebeste izendatu du bake

epaile kargurako eta Anuntxi Txoperena Matxikote ordezkotzateko.

Zinegotzien ordainsariak

Aitzineko alean, zinegotziek osoko bilkura ba-

koitzera joateagatik 180 euro jasoko dituztela aipatu zen, udal aktak hala argitaratu zuelako. Baina aldaketa bat egon da eta zinegotziek 160 euro hartuko dituzte osoko bilkuretara joateagatik.



Lulu

38tik 64ra bitarteko neurriak

Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik • IRUN

Tel. 943 616 165



Club Más Por ti
Gehiango Zuregatik Kluba

Bere

Agara Kirolak
Alimentacion Tellerxea
Arturo
Asador Zublondo
Bortzirudi
Domo Service
Floristeria Azalea
Goya
Igone Paperdenda
Kirolak Zela
Martzutzak
Ostargi Optika
Pikaboa harategia
Xugar

Lurra

Bixikiak Kirolak
Intzuri Optika
Kattagonia Lentzeria
Kaxerna Elektrogailuak
Muebles Ordoki
Oreka Nutrizioa
Txinelka Zapateria

Zure erosketengatik
Gehiango ematen dizugu

URRIAREN 22TIK 29RA

%10

Puntutan, hurrengo erosketetan
trukatzeko, **200 euro arteko erosketetan,**

★ **201 - 400 euro** bitarteko erosketetan
20 puntu emango dira, ohikoa den
%2az gainera.

★ **401 - 1.000 euro** bitarteko
erosketetan 25 puntu emango dira,
ohikoa den **%2az** gainera.

★ **1.001 euro** baino gehiagokoetan
50 puntu emango dira, ohikoa den
%2az gainera.

Sustapenak urriaren 22tik 29ra arte iraungo du, edo martxoaren 31 arte.

Informazioa bildu eta Gehiango Zuregatik Klubean alda eman, sustapenean parte hartzen duten
sustokietan, edo **948 01 61 31** telefono-zenbakira deituz edo **www.clubmasporiti.com** helbidean.

ARANTZA

HEZKUNTZA → ALDAKETAK GURASO ELKARTEAN

Lau kide atera eta bertze lau sartu dira Guraso Elkartean

Sartu direnek bi urterako ardura hartu dute

Nerea ALTZURI

Ikasturteak martxa hartua du. Goiz arratsalde lanean hasiak dira hilabete honetan, gainerako ikastetxeetan bezalaxe. Eskolako gurasoen ordezkari taldeak ere, Guraso Elkartean, alegia, bilerak hasi ditu.

Guztira, zazpi lagunek osatzen dute eta bi urte egin ondotik, lau gurasok ardurakutzi eta bertze lau amatxo aukeratuak izan dira.

Arantxa Otegik, Pili Telletxeak, Sonia Iturriak eta Beatriz Iparragirek utzi dute; eta Mirian Errandonea, Maixux Etxeberria, Marian Larralde eta Amaia Apaolaza gurasoen taldera bildu dira.

Maixe Oskoz, Pili Larretxea eta Jesus Mari Goizuetak azken ikasturtea dute elkartean.

GURASO ELKARTEA
Mirian Errandonea, Maixux Etxeberria, Marian Larralde eta Amaia Apaolaza dira Guraso Elkartean sartu diren ordezkari berriak. Guztira zazpi dira.

2012ko bidaia Alemaniara

Heldu den urtean, abuztuaren 20tik 28ra zehazki, Alemaniara joateko oporraldia antolatu da.

Martin Legarrak antolatu eta gidatzen di-

tuen bidaietan, oraingoan Alemaniako hainbat inguru ezagutzeko aukera izanen da. Horrelako bidaiak lehenagotik prestatzea komeni izaten da, eskaintza arrazoizkoak lortze aldera. Hortaz, 50 plaza-ko eskaintza denez, in-

teresatuek lehenbailehen horren berri ematea eskatzen da. Horretarako informazio telefonoa 948 634030 da.

Bertzalde, aipatu, aurten bidaian ibili direnek udan Igantziko Biltoki elkartean bazkari ederra egin zutela igantziarrek antolatuta. Egun polita pasatu zuten.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kultur Egunak prestatzen

Kultur Egunetako prestaketek aitzinera segitzen dute. Oraindik egitaraua guztiz zehaztua ez badago ere, joan den urtean, Guraso Elkartean pottokekin paseoak antolatu zituen. Auniz gustatu zitzaizkien denek eta oraindik segurua ez bada ere, aurten ekimena errepikatzekotan daude. Horren eta gainerako xehetasunen berri hurrengo alean emanen dugu.

Yoga ikastaroa martxan

Urriaren 11tik aitzinera, yoga ikastaroa eskainiko da herrian. Ariketa fisikoak, oreka emozionala, kontzentrazio mentala eta erlaxazioa eskainiko dira, horiekin guztiarekin norberak bere burua hobeki ezagutzeko. Heldu den asteartean, urriak 11, egingen da lehenbiziko saioa eta hortik aitzinera, asteartero 20:00etatik 21:00etara izanen dira.

Norbaitek apuntatu nahi badu 627 395245 telefonora deitu behar du eta Klariz galdetu.

okaNeo
HARATEGIA / URDAITEGIA
Tel: 948 630 018 | Kaittunbarri 12 • BERA

elika
Dietetikoa eta elikadura
Tel: 948 630 283 | elika@elika.com

aterpe
Tel: 948 634 119
ARANTZA
www.arantza.net

F. LANCHAS
Akupuntura eta heriztatzeak
Tel: 948 630 755 | 607 406 781

ZUBIONDO
Jatetxea
Tel: 948 630 755 | BERA NAFARRA

GIZARTEA → URRIAREN 15ETIK AITZINERA

Bi hilabetez itxita egonen da Ulibeltzak elkarteak

Moldaketa lanak egin behar dira elkarteak

Maidar PETRIRENA

Larunbat honetatik, urriak 15, aitzinera, bi hilabetez ateak itxiak edukiko ditu Ulibeltzak elkarteak. Moldaketa lanak direlako egonen da

itxita eta zuzendaritza batzordetik sor daitezkeen eragozpenak direla-eta, barkamenak eskatu nahi izan dituzte.

Egin beharreko lanak hauek izanen dira: in-tsonorizatu, sukaldeko tximiniak aldatu eta itxi-ko dela aprobetxatuz, margotze lanak egiten ere saiatuko dira. Azken horretarako bazkideen laguntza beharko dute.



ARGAZKIA: NIEBES BIURRARENA

Dantza jaialdi ikusgarria

Izugarrizko erakustaldia egin zuten dantzariak urriaren 1ean. Ondoko dantzak dantzatu zituzten: Iribasko ingurutxoak, neskatxak, mando baten gainean, Kortez, makil ttiki, Xemeingo ezpata dantza, Gorulari, Batelerak, jota eta porrusalda. Tartean Sunbillako erraldoiek ere bi dantzako erakustaldi ederra egin zuten. Jaialdia akitzeko dantzari guztiak atera ziren kalejira eta zortzikoa egitera, publikoa dantzatzerantz animatuz. Egindako lanagatik zorionak merezi dituzte. Bertzalde, inauterien ondotik hasiko dira berriz dantza ikastaroak eta ea animatzen den jendea.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

Mendi irteerak

Ulibeltzak Mendi Taldearen irteerek aitzinera segitzen dute. Urriaren 23an San Donatora joanen dira eta hilaren 30ean Tututurrera (Aralar), bi kasuetan 07:00etan abiatuko dira plazatik. Argazkia Baztango Auza mendira irailan egin zuten ateraldikoa da.



ARGAZKIA: ESTITXU ARRETIXEA

Herriko erraldoiak Igantziko bestetan

Urriaren 1ean izugarrizko lana egitea tokatu zitzaion Sunbillako erraldoiei. Eguerdian erakustaldia eman zuten Igantzin eta arratsaldean, berriz, Sunbillako dantza jaialdian. Zorionak!

Martikoko
Poz Zorion, A. R.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 630 000 Fax: 948 630 000
www.martikoko.com

DENDA
ORDUTEGIA
ABSTINENTIA
ORDUTEGIA
08:00etatik
17:00etara

Martikorekin
za zeu
sukaldari.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

© 948 630 763 - Altxale, 17 - BERA

LABIT - GORTEGA

948 630 786
Altxale, 19 - BERA

Karsuk
Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altxariak

Karlos Pontier Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F: +34 948 625 430
M: +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

GIZARTEA

MENDIA → KOSTALDETIK EGIN DUTE IBILBIDEA

Hirugarren aldiz Done Jakue Bidea osatu du Goiz Mendi taldeak

Urtero iraileko hilabetean etapak egiten aritu dira

Fernando ETXEBERRIA

Baztan, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi, Zugarramurdi eta Nafarroako eta Gipuzkoako bertze tokietako kideak biltzen dituen erretiratuen taldea da Goiz Mendi, eta duela gutti, hirugarren aldiz bukatu du Done Jakue Bidea, eta bertzeetan ez bezala, kostaldetik.

Goiz Mendi taldeko kideak 1999an hasi ziren lehendabiziko harat-honatak egiten Arkupeak Jubilatuen Elkar-tearekin eta Done Jakue Bidearen Baztango zatia eta Sakanatik Arabako mugara bitarteko

bidea ere egin zuten. Ondotik, hamalau lagunek Donibane Garazitik (Nafarroa Beherea) abia-

tuta ere egin zuten Done Jakue Bidea.

Esperientziarekin pozik, berriz egitea eraba-

ki zuten eta 2006an Iparaldeko bidea aukertu zuten.

Joan den irailaren 19an

Galiziako mugatik ohiko bidearekin bat egiten duen Arzua bitarteko azken sei etapak egin zituzten. Eta helmugara ailegatuta, irailaren 24an Santiagoko katedrala bisitatzeko aukera izan zuten, baita Galiziako jakiak dastatzeko modua ere, tartean olagarroa. Oinez ibiltzeaz gain, turismo pixka bat egiteko aprobe txatu zuten hango egonaldia.

Laburbilduz, ibilbidearen edertasuna nabarmendu dute Goiz Mendikoek, baina gorabehera askokoa dela ere esan dute, ohiko ibilbidea baino gogorragoa delako. Eta Santander eta Asturias aldean sobera ongi seinalizatua ez dagoela ere adierazi dute, eta aterpe gutti dagoela.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Goiz Mendi taldeko kideak Santiagoko katedralaren aitzinean.

PSIKOBIDE PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra

HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaitez!!

Kolon Pasealekua, 64 behea • 20301 - IRUN
Tel. 689 639 543 • www.psikobide.com



AZPIEGITURAK → MURRIZKETAK NAFARROAN

Gobernuaren murrizketen ondorioz dirulaguntzak atzeratuko dira

Dirulaguntzen zati haundi bat gibeleratzea erabaki du Gobernuak

Bertzalde, 200.000 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena ere egin zuen Udalak Gobernuarekin eta 180.000 euro 2012ra pasatzea erabaki du Nafarroako Gobernuak.

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak hainbat murrizketa iragarri ditu aurrekontuan eta erabakiaren eragina Donezteben ere nabaritu da. Alde batetik, futbol-zelaiko lanetarako 450.000 euro aurreikusiak zituen Gobernuak aurtengo eta horietatik 405.000 euro 2012ra gibeleratuak izan dira. Baina Jaime Sein Futbol Taldeko lehendakariak argitu digunez, «futbol zelaia ia akitua dago eta murrizketek ez digute ezertan eragin. Espero dugu partidak 23an jokatzen hastea».

Judo eskola zabalik

Errekako Judo Eskolak ere hasi du denboraldia. Oskar Mindegia eta Noelia Ariztia izanen dira irakasleak eta klaseak astearte eta ortzegunetan izanen dira Donezteben eta asteazketan Iruritan.

Azken urteotan Nafarroa mailan izandako emaitzak ikusita, aipatzekoa da judo eskola lan ona egiten ari dela erratea. 5-6 urtetik aitzinera adin guztietako jendearendako zabalik dago eskaintza.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Ekitaldi aunitz eta giro ederra besta ttikietan

Ekitaldiz beteriko egunak izan ziren irailaren 23a eta 24a. Ortziralean hasita, Doneztebarrak Merkatarien Elkartek antolatuta hainbat ekitaldi egin ziren: hamar bat merkatarikarri atera eta merkatua egin zen, argazki erakusketa ere bai, haurrentzako jokoak, batukada, pintxoak... Gazte Burrunbak ere gauza andana prestatu zituen: Erreka Pilota Elkartek botatako txupinazoaren ondoren egin zen zopa-jatea, dantzaldiak, herri kirolak, bazkaria, erremonte partidak eta dantza saioak... Giro ederra izan zen bi egunetan. Merkatarikarrietatik ere gustura gelditu dira jendearen erantzunarekin, eta jendea ibili zela aipatu digute.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Mila lagun UAGNk antolatuta Nafarroako Nekazaritzaren Egunean

Nafarroako UAGN sindikatuaren eskutik, Nafarroako Nekazaritzaren Eguna egin zen irailaren 24an. Hainbat ekitaldi izan ziren eta jendearen erantzuna ere halakoa izan zen. Kiroldegian egindako bazkarian, erraterako, mila lagun inguru bildu baitziren. Felix Bariain UAGN sindikatuko presidentek sektorearen premien berri eman zion Lourdes Goikoetxea Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Industria, Lan eta Ingurumen Departamentuari. Lehenbiziko eskaria berriz ere nekazari eta abeltzainendako departamentu propioa izatea izan zen. Horrekin batera, «nekazaritza eta abeltzaintzak Nafarroan krisiari hobe egin dion sektorea» dela azpimarratu zuen, «inbertsioei eta lanerako gogoei» esker. Sektorearen arazorik handienak «prezioak eta banatzaileen diktadura» zirela ere aipatu zuen.

ITUREN

ERAKUSKETA → AZAROAREN 3RA ARTE

Gema Labaien herriko eskultoreak bere lanak Elizondon paratu ditu ikusgai

‘Elementuak’ izeneko erakusketa urriaren 7az geroztik ikus daiteke

Arkaitz MINDEGIA

Iturendarra dugun Gema Labaien eskultoreak Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean jartu ditu bere lanak. Urriaren 7an zabaltzekoa zen erakusketa eta azaroaren 3ra bitarte, astelehenetik ortziralerara eta 18:00etatik 20:00etara, hantxe egonen dira ikusgai. Erakusketaren izena *Elementuak* da.

Elizondora ailegatu aitzinetik, erakusketa gehiago eginak ditu aurre: apirilean eta uztaillean, erraterako, Castro Urdialesen eta Laredon (Kantabria, Espainia) jartu zituen bere lanak erakusgai eta uztailetik abuzturako tartean Burgosen (Espainia) ere ibili zen. *Elementuak* erakusketaz gain, *Itsasoko*

kantuak, *Laberintoak* eta *Muga* izenekoak egin izan ditu.

2007az geroztik, esklusiboki eskulturara dedikatzen da Labaien eta egurrezko lan batzuk egiten baditu ere, bereziki harria da erabiltzen duen materiala.

Erasun aizkoran

Ander Erasun aizkolaria aurtiztarra uda guztian hortxe ibili da herriko bestetan batetik bestera, aizkora erakustaldiak egiten, batzuk irabaziz eta bertzeak galduz. Baina joan den urriaren 2an Nafarroako Maila Nagusiko Aizkolaria Txapelketako finala izan zuen jokoan. Aizkolaria onenak direla kontuan hartuz, ederki aritu zen Aurtizko gaztea kanporaketan, bosgarren geldituz.

Finalerako txartela lortu zuen eta hortaz, azaroaren 18an Donezten jokatu den Nafarroako Lehen Mailako finalean ariko zaigu. 17:30ean hasiko da lehia. Zorte on!

Aurtizko bestak

Gero eta guttiago falta da Aurtizko San Martin bestetarako. Azaroa-

ren 10etik 13ra izanen dira, eta dagoeneko aurtiztarrek gogotsu ari dira gisa guztietako eki-

taldiak prestatzen. Hurrengo TTAPI-TTAPAN emanen dugu egitarauaren berri.



UTZITAKO ARGAZIAK

Joaldunen Eguna

Eguraldi lainotuarekin hasi zen eguna, baina joare eta trikitixa doinuekin eguraldiak buelta eman zuen eta giro onean joan zen dena.

IMANOL ITURRIA
ZURGINA
Ferreteria eta pertsona
T. 948 577 137
E-posta: imanoli@iturria.com
Eskatu zure konpostu konpremiatutako gela

FRANCO
Fruiteria
BERRANDONEA, ILL.
Fruiteria eta berrandonea
BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 • aldea 21-22 • 31780 BERA

zalain
RESTAURANTE
Zalain autoa zig
31780 Bera
T. 948 631 106
W. www.zalain.com

948 631 218
Kantilnera 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
KATEA-BIKE

KIROLA → NAFARROA ETA EUSKAL HERRI MAILAN

Hirugarren eta laugarren postuak eskuratu ditu Loiarrek aizkora

Txapelketetako zaharrena Jose Antonio bera izan da

Fermin ETXEKOLONEA

Denboraldi ona egin du Jose Antonio Loiarre herritarrek aizkora, besteak beste, bi txapelketa ofizialetako finalatan aritu baita berriki. Alde batetik, irailearen 25ean Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu zuen Uharten (Nafarroa) eta honetan laugarren sailkatu zen.

Urriaren 2an, bestetik, Euskal Herriko III. Mailako Txapelketa jokatu zuen Aizarnazaba-

len (Gipuzkoa) eta aldi honetan hirugarren postuan gelditu zen.

Gazteagoen artean ederki moldatzen dela erakutsi du herriko aizkolariak, 50 urterekin, bi finalatan bera izan baita helduena. Egindako lanagatik zorionak!

Eskulan ikastarorik ez da izanen

Azken ordura arte zailantzan egon badira ere, azkenean ez da eskulan ikastarorik izanen. Orain arte irakasle izan den Puy iruritarrek ezin du ikastarorik eman aurretik, eta penarekin bada ere, bertan behera gelditu dira eskulan ikastaroak.



ARGAZKIA: ERNESTO KAY

Zentrala ez harat eta ez honat

Askok gogoratuko duzue Iberdrolaren zentralak nolako mugimendua izaten zuten lehen. Bere garaian, hiruzpalau herritar ere lanean aritzen ziren, eta mende bat baino gehiagoan martxan egon zen. Baina azken urte hauetan geldirik ikusten dugu. Orain dela urte batzuk berrikuntza lan batzuk ere egin ziren, eta batzuk baino gehiagok berriz ere martxan hasiko ote zen pentsatu zuen. Ez da, ordea, horrela izan. Ez zaio probetxurik ateratzen eta sasiak hartzen ari da 1906. urtean eraiki zen zentral honen ingurua.

Ehiza garaia

Usoak etortzen direnerako prest egon nahi dute herriko ehiztariek. Ehiza denboraldia gailentzen dugun honetan, puestoak prestatzen ari-tu dira azken aldian eta

mugimendua nabaria da.

Herritar bat gehiago

Urriaren 2an jaio zen Ylenia Bendoiro Telletxea, Iratxe eta Xabie-

ren haurra. Horrek esan nahi du herritar bat gehiago badugula eta poztekoa da hori. Lerro hauen bidez zorionak gurasoei, baita Marikarmen eta Maripaz amatei ere.

%20
DESKONTUA
SUKALDE
ALTZARIEKIN

expert

BIDASOA

Bidasoa, 45 · 31780 Bera · 948 630377 · 948 631091 · info@bortzirak.com · www.bortzirak.com

BIDASOA

BERA - BERRIOZAR -
BERRIOZAR - BERRIOZAR

T.F. 859 971 442
BERA

José L. González Enguita

Baratzen eta Berriztatzen

tel. 666 233 466

URROZ

BESTAK → AKITU DIRA SANMIGELAK

Eguraldi eta giro ederrean joan dira aurtengo sanmigel bestak

Argazki zaharren erakusketak jendearen arreta piztu du

Joseba URROTZ

Bertze urte batez, giro ederra izan dugu bestetan, eta zer erranik ez eguraldiari buruz, garai batean sanmigeletan euria izaten zen albiste, baina gaur egun ez.

Ekitaldi gehienak beste dira, herri kirol saiorik izan ez bazen ere. Aurten lehenbiziko aldiz egin den argazki erakusketak ere izan du bere arretarik, jendea interesatu baitzaio, baita gustatu ere. Eta hone tan eskertzekoa da Bidari eta Nekane egin dako lana.

Herri bazkarirako ere, itzala eta guzti, ez zen deus faltatu.

Bertzalde, bistan da gero ta gehiago, herritarrentzat direla bestak, garai bateko auto eta jende andanak akitu dira; krisia, alkoholemia

kontrolak eta bertze herrietako bestak izanen dira arrazoiak?

Krisiaren eraginak batean eta bertzean

TTIPI-TTAParen aitzineko ale batean azaldu bezala, ez zen inor agertu ehiza barrutien enkantera. Hala ere, ondotik, hasierako prezioaren azpitik bada ere, izan zen eskaintzarik eta saldu dira denak.

Bertze aldetik, aipatu, uraren goiko hornidura berritzeko proiektua egin eta onartua izan arren, ematen du momentuz lanak ez direla hasiko, diru iturriak ere agortu xamar... Ondorioz, nekazaritzako azpiegiturak hobetzeko joan den urtean eman zen dirulaguntzarekin egindako proiektuaren azken zatitxo bat momentuz ez da eginen. Ez behinik behin aurreikusitako bezala bidea hormigoituz. Moldatu eta nahiko izan behar du.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

San Migel egunean zabaldu zen goiko irudian ikusten den argazkien erakusketa frontoian eta jendeak ongi erantzun zuen. Beheitiko argazkia, berriz, herri bazkarikoa da, itzalpean egin zena.

SUKALDEKO OLIOARENTZAT EDUKIONTZI

• Galkera bikaina pertsona bakoitzari eta herrietako erakundeetako taldeetako kideei. Jantaria, jantaria dituzte kalean.

• Kokapena: Elizondo, Salvador eta Aldudes kaleetan. Herria: Berueta-Zaga errepidean. Arakurri: Herriko plazan. Oñateko: Merkataldeko plazan eta Aparan industrialdean. Iruñea: Ramon Larrosa plazan. Nafarroa: Frontoiari-irribidean. Iruñea: Agente auzoan. Nafarroa: Auzoan eta Eztegarra kalean (Irribideak). Oñate: Elchea kalean (Alproa) eta Arretosa kalea. Iruñea: Aparkaleku-bus geltokian. Arakurri: Herri sarrerako aparkalekuan. Elizondo: Herri sarrerako aparkalekuan.

BERRIA!

BAZTAN, BALEERKA eta BORTZIRIAN

• Sukaldeko olio-erakundeak eta kotxeak ezin hain ongi erabiltzeko.

• Olio ondo itxilatuko ontzietan utzi behar da edukiontzia barruan.

• Olio-pisu modukoak erabiltzeko da berrizatu ondoren.

902 366 251

www.ecogras.es

Informazioa: 902 366 251

Herriko erakundeetako gaitasuna

Auzoetako gaitasuna: 902 366 251

DONAMARIA

IKASTURTE BERRIA → IKASTAROAK

Gimnasia eta yoga ikastaroak eginen dira udaberrira bitartean

Bertzalde, urriaren 17an zabalduko ditu liburutegiak ateak

Iñaki TELLETXEA

Udazkenean sartu berriak gara eta urtero bezala, herrian hainbat ikastaro antolatu dira. Alde batetik, gimnasia ikastaroa martxan jarri da, urriaren 3an hasi ziren eta udaberrira bitarte luzatuko da. Saioak astelehen eta asteazkenetan 15:00etik 16:30-etara izanen dira pilotalekuan, Daniel irakaslearekin. Oraindik izena eman nahi duenak bertara hurbiltzea bertzezik ez du egin behar.

Yoga nahiago duenak ere badu horreta-



ARGAZKIA: IÑAKI TELLETXEA

Argazkian ageri den taldea urriaren 3an hasi zen gimnasia ikastaroarekin.

rako aukera. Igerileku-ko aldagelen gainean dagoen Erabilera Anitzeko lokalean emanen da. Asteazkenetan 20:00etatik 22:00etara izanen dira saioak, Omar Carabiaren eskutik. Ikastaro honetan izena

eman nahi duenak 630 777130 telefono zenbakira deitu beharko du.

Beraz, bi ikastaro hauekin hezurak zauli eta gorputza sasoiari edukitzeko aukera izanen dugu herritarrok negu honetan.

LIBURUTEGIA LASTER ZABALIK

Ziberliburutegiak ere ateak irekiko dizkigu hilaren 17an. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 19:30era irekia egonen da eta Izaskun Goñi izanen da arduraduna.

LANA

1.101

langaberekin joan da iraila

TTIPI-TTAPA

Irailean ere goiti egin zuen langabeziak eskualdean. 1.101 langabe zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak irail hondarrean, hilabete lehenago baino 6 gehiago, edo bertzelaterranda, %0,55 gehiago. Irailean 472 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, baina horietatik 61 bakarrik izan ziren mugagabeak. Adina eta sexuari dagokienez, 25 urtez goitikoetan, gizasemeen artean goiti egin zuen langabeziak, 438tik 439ra, eta emakumeetan, aldez, 508tik 499ra jaitsi zen. 25 urtez beheitiko emakumeetan 66tik 67ra igo zen eta gizonetan 83tik 96ra.



60 aniversario
Casa Cambra
Zure erosketarengatik urteurreneko oparia

Udazken-negua

edretel fundak
edretel nordikoak
olje estalkiak
albornoak
maindireak
mantelak
kaxinak
toailak

Tafalla, 13 • IRUÑA • 948 230 634

MALERREKA

KULTURA → MALERREKAKO ZAZPI IKASTETXEETAKO IKASLE ETA IRAKASLEENDAKO

‘Euskaraz bizi nahi dut’ ipuin eta bertso paper lehiaketa antolatu da

Lanak azaroaren 11 baino lehen aurkeztu behar dira

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Euskarra Batzordeak, Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak eta Doneztebeko San Migel Lehen Hezkuntzako ikastetxeak *Euskaraz bizi nahi dut* izeneko bertso paper eta ipuin lehiaketa antolatu dute Malerrekako ikastetxeetako ikasle eta irakasleendako. Beintza-Labaien, Doneztebe, Ituren, Legasa, NARBATE,



Lehiaketaren leloa *Euskaraz bizi nahi dut* da.

Saldias eta Sunbillako ikastetxeek parte hartu dezakete eta aurkezten diren lanek *Euskaraz bizi nahi dut* leloarekin lotua egon beharko dute.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoendako ipuin lehiaketa iza-

nen da. Parte hartzaileei ipuinaren hasiera emanen zaie eta guttienez orrialde bat izan beharko du. 5. eta 6. mailakoendako, berriz, bertso paper lehiaketa egiten da. Guttienetz lau koplado bi bertso izan

beharko ditu. Irakasleek, euren aldetik, bertso paper nahiz ipuin lehiaketan parte hartu ahal izanen dute.

Lanak euskaraz izatea ezinbertzekoa izanen da eta jatorrizkoak izan beharko dute. Horrez gain, egile berberak sail bakoitzean lan bakarra aurkezten ahaliko du.

Lanak aurkezteko epea zabalik dago eta azaroaren 11n akituko da. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 30ean izanen da Doneztebeko eskolan, 17:00etatik aitzinera. Horrez gain, egun horretan parte-hartzaile guztiei berendua ere eskainiko zaie.

MALERREKA

Helduen

bertso eskola sortu nahi da Malerrekan

TTIPI-TTAPA

Bertsotan ikasi eta ongi pasatu nahi duzu? Bada bi aukera horiek eskainiz, helduen bertso eskola sortu nahi da Malerrekan. Bertsoetan ikasi eta ongi pasatzeaz gain, sormena eta kantua lantzeko aukera ere eskaini nahi da eta bide batez, euskararekin jolasteko modua ere bai. Beraz, bertso gose hori ase nahi duenak aukera ezin hobea izanen du Malerrekan, urriaren 31 baino lehen Malerrekako Mankomunitateko Euskarra Zerbitzura deitzen badu (948 451746).

ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → URRIKO LEHENDABIZIKO ASTEBURUAN

Ohorezko Kide berriak izendatu ditu Onddo eta Zizen Kofradiak

Horien artean, Jesus Alvarez TVEko kirol kazetaria

TTIPI-TTAPA

Inguruko basoak idor daude eta azkeneko asteetan ez da onddorik ageri, baina halere, urteroko ospakizuna egin zuen urriko lehenbiziko aste hondarrean Elgo-

rriagako Onddo eta Zizen Kofradiak.

Urriaren 2an, Kofradiako ohorezko kide berrien izendapena egin zen eta urtero bezala, jende ospetsua aukeratu zuen horretarako Kofradiak. Honela, Jesus Alvarez TVEko kirol kazetaria, Javier Tolosa aktorea, Madrilgo Tres Cantos hiriko Ana Vicente zinegotzia, Arotz enpresako Txomin Aro-

tzarena eta Sanvirila ho-teletako Goyo Sanzol egin zituzten Kofradiako ohorezko kide.

Aurpegiz ezagunena, hainbat aldiz telebistan ikusteagatik, Jesus Alvarez izan zen. Bere ezjakintasuna onartu zuen, Elgorriagara etorri behar zuela aipatu ziotenean, txokolate aunitz janen zuela pentsatu omen zuen eta. Onddoak jatea gus-

tatzen bazaio ere, gailaz ez duela deus ulertzen ere aipatu zuen, baina bera Madril hiriburukoa izanik, herri ttiekiek bere tradizioak mantentzeko egiten duten lana goraipatu zuen.

1960an Elizondon sortu zen eta gaur egun Sorian egoitza duen Arotz enpresako Txomin Arotzarenak aipatu zuenez, bertzeak ber-

tze onddoa, perretxikoa edo gaztaina izoztua eta kontserban esportatzen dute Europa osora, Italiara batez ere. Bera izan zen Elgorriagako plazan prestatu ziren onddo lehiaketako epaileetako bat. Lehenbiziko saria Donostiko Euskal Gastronomia Kofradiarentzat izan zen eta bigarrena, Nafarroako Zainzuriaren Kofradiarentzat.

REXU URRUTIA → TAFALLAKO IKASTOLAKO ZUZENDARIA

«Tafalla aldean euskarak laguntza behar du eta arrazoi bikaina da igandean Nafarroa Oinezera hurbiltzeko»

Markel LIZASOAIN

Aurten, tafallarrei tokatu zaie Nafarroa Oinez antolatzea, eta Rexu Urrutiarekin egondu gara, gehiago jakiteko. Tafallako ikastolako zuzendaria da bera. Saldiaстик orain dela 20 urte joana, irakasle. TTPI-TTAPAKo berriemaile ere izanduzen aldizkariaren hasierako urte haietan; garai hartaz, orotzape on duela esan digu, baina guk etorkizunera begira jarri, eta iganderako prestakizunez galdetu diogu.

• Zenbat urte da Tafallan bizi zarela?

Tafalla ondoko herri ttiki batean bizi naiz, Baldorban. Orain dela 20 urte etorri nintzen hemen etxebat erosi ondoren. Etorri berrian, curikuluma ikastolan aurkeztu eta handik gutxira, lanerako dei-

tu ninduten. Atsedenu urte batzuk hartu baditut ere, hementxe nabil geroztik.

• Zer moduz bizi zarahana?

Baldorba bailara asko gustatzen zait, hemen go argia gustatzen zait. Nafarroako mendia hemena akitzen dela esan genezake, beherantz joanez gero askoz zelaia goa baita.

• Saldiasko deuseren faltarik sumatzen al duzu?

Uda honetan bereziki hango langarra bota dut faltan, alde honetan oso eguraldi idorra egin baitu. Eta noski, saldistarrak.

• Zer moduz dago euskara Tafallan?

Ikastola euskarazko eredu eskaintzen duen eskola bakarra da, eta guk matrikulazio igoera izan badugu, euskararen

egoera osasuntsua dela esanen nuke.

• Karrikan zer giro dago egun hauetan?

Nabaritzen da eguna hurbiltzen ari dela. Kanean edozeinek festari buruzko galderak egiten dizkizu, jendea muntaia lanetan hasi da... Orain dela bi aste, ibilalditik barna, festa giroan egin zen martxa bat antolatu genuen bertako jendearentzat, girotzen joateko.

• Nola doaz igandeko prestakizunak?

Oso ongi, urtean zehar lana haundia egin da, eta orain azken txanpan gaudela. Egunerako dena bikain prestatuta izan nahi dugu. Nere lanari dagokionez, koordinazio lanetan ibili naiz lantalde batekin. Zuzendari lanetan nabilenez, kanpo harremanak, aurkezpenak,

prentsaurrekoak, elkarizketak, hitzaldiak... egokitu zaizkit. Asko ikasi dut.

• Zer dabilkizu burutan egun hauetan?

Egia esan, eta oso gustuko ez izan arren, 16an eginen duen eguraldiak kezkatzen nau, adibidez. Antolaketa aldetik, berri, lanean dabilen jendearengan konfidantza osoa daukat. Dena prest izanen dugu.

• Zerentzat joan behar genuke igandean Tafallara?

Ikastola asko haunditu da azken urteotan, eta DBHrako eraikuntza berri bat behar dugu. Tafallaldean euskarak laguntza behar du, eta arrazoi bikaina da urriaren 16an denak Nafarroa Oinez 2011 festara hurbiltzeko.

• Nola ikusten duzu Nafarroa?

Topikoa bada ere, Nafarroan aniztasuna dela ezaugarririk garrantzitsuenaren nuke. Nik ezagutzen dudana, behintzat, eta euskarari dagokionez, oso egoera eta errealitate desberdinak ematen dira.

• Zer iruditzen zaizu Nafarroako Gobernuak Eratsungo eskola itxi izana?

Pena da eskola ixtea. Nere ustez, herri ttikietako eskolak zaindu beharreko altxorak dira.

• Ba al da saldistarrak esan nahi zeniekeen ezer?

Urriaren 16an Tafallan egun ederra pasatzeko aukera dutela. Ikuskizun bikainak, jatekoa, edatekoa, musika, jolasak, apusturen bat tartean... Denetarik izanen dela. Animatzeko.



ARGAZKIA: UXUE COMUNICACION

Rexu Urrutia saldiastarra –erdian– Tafallako ikastolako zuzendaria da. Argazkian lankideekin.

Sitsa eta pipien tratamenduak
egiturak, zoruak, altzariak, etab.

Hexetasunaren aurkako tratamenduak
hexetasun igotzaileak, lurrina, etab.

Desugerketa (dekapatua) murgilketa bidez
linoak, ateak, altzariak, etab.

Sabaien zaharberriketak
azterketa eta aurrekontuak konpromisurik gabe.



nadema

Pirgore Berruete C/ E-ribe 157
Tfno: 948.30 32 40 / Fax: 948.30 33 40

www.nadema.es

NARBARTE

GIZARTEA → XIX. MENDEKO KONTUAK

Lakoizketako Jose Mari: belarrak bildu eta sailkatzeagatik ospetsu egin zen apaiza

Botanika izan zen bere pasiorik handienetarikoa

TTIPI-TTAPA

Lakoizketako base-
rria, Doneztebe eta Nar-
barteko herriaren artean,
Legasa parean dago. Be-
re garaian, Baionatik ha-
sita Iruñera arte laboran-
tza etxerik hoberena be-
zala ikusia zen, Eduardo
Gil Bera idazleak Lakoiz-
ketako apaizari buruz
egindako liburuan aipa-
tzen duen bezala.

Lakoizketako Jose
Mari 1831ko otsailaren
2an jaio zen Narbarteko
Lakoizketa baserrian.
Ikasketak Iruñeko institu-
tuan egin ondotik, semi-
nariora sartu zen. Apaiz-
aizendatutakoan, Elgo-
rriagako elizan bi urte pa-
satu zituen eta gero, Nar-
barteko elizako ardura-
dun egin zen, eta 30 urte
igaro zituen (1857-1887).

Jose Mari, elizako la-
naz aparte, bertze hain-
bat kezka ere bazituen.
Bere pasiorik handiene-
tarikoa botanika zen eta
tarte libre guztietan ho-
rretan aritzen zen. Ber-
din zitzaion zer eguraldi
egiten zuen; makila, mai-
lua, zizela eta latoizko
kutxatxoak gainean har-
turik, harriak eta landa-
reak biltzera joaten zen.

Narbarteko jakintsu
honek belar gehienak

BI LIBURU

**Botanikaren inguru-
ko bi liburu idatzi zituen
Lakoizketako seme-
ak: Bertizaranan be-
rez hazten diren lan-
dareen bilduma eta
hiztegi bat ere bai.**

Bertizaranan bildu zitu-
en; baina Saldias, Men-
daur, Sunbilla, Etxalar,
Elbete, Berroeta eta ber-
tze hainbat lekutan bil-
dutako belarrak ere age-
ri dira bere herbarioan.

Garai haietan, ezjakin-
tasunaren eta ez ohikoa
zen jarrera baten ondori-
oz, herriko jendea La-
koizketako eroa deituz
hasi zen. Behin, herriko
baserriar batek belar
arraro bat eman omen
zion eta apaizak ordaine-
tan duro bat. Duro bat
dirutza handia zen garai
haietarako. Horrelako jo-
ka ere harridura sortzen
zuten herritarren artean.

Berak, ordea, inori ka-
surik egin gabe bere pa-
sioan lanean segitu zu-
en, belarrak bilduz eta
katalogatuz. Hala, Euro-
pa mailan ospe handia
lortzen hasi zen eta bota-
nika munduan espainiar
estatuko iparraldeko adi-
turik handiena bihurtu
zen. 1877. urtean Fran-
tziako botanika elkarte-
ko kide izendatu zuten
eta hiru urte berandu-
ago, Espainiako historia
naturalaren botanika ata-
leko kide.

Botanikaren inguru-
ko bi liburu idatzi zituen.
Lehenengoa Bertizaran-
an berez hazten diren
landareen bilduma izan
zen, 1885ean argitara-
tua. Bigarrena *El diccio-
nario de los nombres
euskaros de las plantas
en correspondencia con
los vulgares castellanos
y franceses y científicos
latinos* izan zen, 1888koa.
Gauregun ere, liburu ho-
nen argitalpen berri ba-
tzuk egin dira. Horieta-
riko bat 1994an, Eduar-
do Gil Berak zuzendua.

Bere lanik garrantzi-
tsuena 2.500 belarrez
osaturako bere herba-
rioa izan zen. Bere iloba
Luisa Lakoizketak Leka-
rozko komentuari utzi
zion. Baina berriki ko-
mentuaren itxiera zela
eta, herbarioa Lakoizke-
tara bueltatu zuten. Bai-
na zaintzeko baldintzak
ez ziren egokienak eta
Lakoizketako oinorde-
koak Nafarroako Gober-
nuarekin harremanetan
jarri ziren herbarioa bal-
dintza egokienean mu-
seo batean egon zedin.
Bere lanari handitasuna
ematen dion gauzetari-
ko bat da euskarari egi-
ten dion tarte; frantses
eta gazteleraren pareko
katuz.

Gobernuak ez zuen
deus jakin nahi izan her-
barioari buruz eta Lakoiz-
ketarrak Gasteizko Na-
tur Zientziaren museoa-
rekin harremanetan jarri



UTZITAKO ARGAZKIAK
Goiko argazkian
Lakoizketa baserria
gaur egun; erdikoan
Jose Mari bera eta
behekoan omenaldi
gisa sortetxean paratu
zitaiaon plaka.



eta hauek gustu handiz
herbarioaren bila etorri
ziren. Ordutik Lakoizke-
taren lanik handiena Gas-
teizko museoan dago.

1887an, hemiplegia
gaixotasuna zeukala-eta,
Elbete bizi zen bere arre-
barengana joan zen Jo-
se Mari eta bi urte beran-
duago hil zen.

Bere lana urteen buruan
baloratu da eta 1924an
Eusko Ikaskuntzak egin-
dako lana eskertuz bere
jaiotetxean plaka bat pa-
ratu zuen. Plaka hau Ber-
tizaranako herriak eska-
nia da.

Gaur egun Lakoizke-
tara bertaratz gero, pla-
ka ikus dezakegu.



OSPAKIZUNAK → KIZKI EGUNAREN HIRUGARREN EDIZIOA

503 kizkirekin marka guztiak erraz hautsi ditu Goizuetak

Halere, antolakuntzak marka «ofiziala» 400 kizkitan utzi du

TTIPI-TTAPA

Markak hobetu ez ezik, erraustu ere egin dituztela esan daiteke. Izan ere, aurreko edizioetako errekorrak (Astigarragan 311 kizki eta Oiartzunen 354) aisa gainditu zituzten goizuetarrek urriaren 1ean egin zen hirugarren Kizki Egunean. 503 kizki sartu ziren horretarako prestatutako eremuan, baina heldu den urtean Hernanin eginen den laugarren ediziorako erronka handi xamarra izanen zelakoan, 400 kizkitan jarri dute marka «ofiziala».

Goizetik jendetza handia bildu zen herrian, eguraldi bikaina lagun. Aurreko egunetan guztira 400 kizki saldu ziren baina horrez gain, norberak bere etxetik eramandako kizkiekin ere plazaratu ziren adin guztietako herritarrek.

Kontaketa egin ondotik, marka berria ospatzeko sagardoa txotxetik edan zen eta gero, herri bazkari jendetsua izan zen. Arratsaldean, sagardogintzarekin zerikusia zuen herri kirol desafioa jokatu zen eta horretan Astigarragak duen ofizioa nabarmen gelditu zen, Astigarragako taldea nagusitu baitzen. Ondotik sailkatu ziren Oiartzun eta Goizuetako bi taldeak.



ARGAZKIAK: ROSA OLAIZOLA

Plazan jarria zegoen eremura adin guztietako 503 lagun sartu ziren beraien kizkiekin.

Trikitilariek herriko kaleetan egindako kalejirarekin bukatu zen Kizki Egunerako iragarritako ekitaldiak, ez, ordea, parranda.

Feria Eguna

Azaroaren 26an eginen den Feria Eguneko prestaketekin hasiak dira herritarrek. Egun horretan barazkiak, eskulanak, aziendak edo dena delakoa eramanez, parte hartu nahi duenak izena eman beharko du. Azaroaren 11n izanen da horretarako azken eguna eta udaletxean egin beharko da.

Bost ikastaro

Nahiz eta joan den urtean baino talde gutxiago atera diren, herritarrek erantzun ona eman diete ikastaroei eta aurreikusitako bost

ikastaroak martxan jarri dira.

Aerobicen hamar lagunek eman dute izena eta astelehenetan eta asteazkenetan 19:00etatik 20:00etara emanen da.

Yoga egiteko, berriz, hamalau lagun apuntatu dira eta astelehene-

tan 17:00etatik 18:15era izanen dituzte saioak.

Harria eta egurra nola tailatu ikasteko gogoz daudenak hamahiru dira eta lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea bazen ere, seguruenik asteazkenetan izanen dira saioak.

Eskulan ikastaroko zortzi lagunek eman dute izena eta ostiralean 10:00etatik 12:00etara izanen da horretarako aukera.

Gimnasia ikastaroak jaso du erantzun onea, 25 lagun apuntatu baitira. Astelehen eta ostegunetan ariko dira, bi taldetan banatuta. Lehengo taldea 09:00etatik 10:00etara ariko da, eta bigarrena 15:30etik 16:30era.

Azaroaren 12ko sarrerak salgai

Azaroaren 12an ospatuko den Gazte Asanbladaren XX. urteurrena dela-eta, txartelak salgai paratu dira.

Herri bazkarirako txartelak Amaia kafetegian eros daitezke, 12 eurotan. Eta kontzertuetarako sarrerak, berriz, Amaiarenean, Garin (Hernani), Torrea (Leizta), Amaxkar (Oiartzun), Arrano (Lesaka) eta Herrian (Donostia) eskura daitezke, 10 eurotan. Egun berean 12 eurotan salduko dira.

ttiipi-ttapa
ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

15996

DOKUMENTU-POLITSA

Behetik

Eskeintzen dituzte... ez da erropak
igogailu bereziak
aulki bereziak...

Arangoa 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

LEITZA

GIZARTEA → ALKE KULTUR TALDEAK ANTOLATUTA

Mikologiaaldiaren laugarren edizioa urriaren 19tik 23ra eginen da

Azken egunean,
erakusketa
mikologikoa
eginen da

koa xixen gainean, marrazki erakusketa, mokadu dastaketa...

Argentinatik Leitzara kantatzera

Georgina Hassan Caballero kantari argentinar ospetsuaren ahotsa herriko zinean entzuteko aukera izanen da hilaren 23an, 19:00etan. Ameriketako ospe haundia duen abeslaria da, baina aipatzekoa da bere sustraiak Leitzan dituela; aitzona leitzararra baitzuen.

Leitze kantuz

Herrian barna kantatzeko ohitura berreskuratu nahi da eta hala, hilabeteko lehenbiziko ostiraletan kantuan aritzeko deia egin da. Lehen hitzordua urriaren 7an egitekoazen, eta hurrengoak, azaroaren 4an izanen da, 19:30ean.

Zinema denboraldia

Hilabete honetan emanen zaio hasiera zinema denboraldi berriari. Beti bezala, ostiral eta igandetan eskainiko dira filmak, ostiraletakoak 22:30ean eta igandekoak 19:30ean. Urriaren 28an eta 30ean, adibidez, *El hombre de al lado* eskainiko da eta azaroan *Valor de ley* eta *Lola*.

TTIPI-TTAPA

Aurten laugarren aldiz, Mikologiari buruzko jardunaldiak antolatu ditu ALKE Kultur Taldeak. Urriaren 19tik 23ra izanen dira, eta ohi bezala, azken egunean aurrekoetan egindako lanaren emaitzak ikusiko dira.

Urriaren 19tik 23ra, neska-mutikoei marrazkiak eginen dituzte eskolan hilaren 23ko erakusketarako. Urriaren 20an eta 21ean, berriz, herritarrek bildutakoa jasoko da Karrapen, 19:00etatik 20:00etara.

Urriaren 22an haurrentzako mendi ateraldia eginen da ontto eta zizak biltzera, 09:30ean abiatuta. Egun berean, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik aurrera, bildutakoen sailkapena eginen da. 18:00etatik aurrera ez da ontto edo xixa gehiago jasoko.

Eta hilaren 23an, 11:00etatik aurrera hainbat gauza izanen da Karrapen: erakusketa mikologikoa, haurrentzako tailerra, proiektzio didakti-



ARGAZKIA: HITZA

Aurrera Elkartearen festa giro ederrean

Eguraldi ederrarekin ospatu zuten Aurrera Kirol Elkarteak bazkideek urteko hitzordu nagusietako bat. Elkarteak talde guztiak atera ziren kalera eta Karrapen egindako otordu eder batekin bazkaldu zuten. Arratsaldean eta gauean segitu zuen pestak.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Kapera berria Iriarten

Kolonbiatik etorritako Eukaristiaren Erromesak Iriarteko kaperara ailegatu dira. Dagoeneko hilabete batzuk badituzte herrian eta irailaren 24an egin zuten egoitzaren inaugurazioa, Francisco Perez Iruñeko Artzapezpikua eta Ander Gillegi apaiza tartean zirela. Hemendik aurrera, astegunetako mezak kaperan izanen dira, eta asteburu eta jaiegunetakoak elizan izaten segituko dute. Iriarteko mojek kaperara hurbiltzen den jendeari harrera eginen diete astelehenetik larunbatera eta horrez gain, Leitza, Uitz, Gorriti eta Aresoko apaizei ere lagunduko diete.



ARGAZKIA: PABLO FEO

Joxe Mari Sestorainek irabazi du pentatloi txapelketa

Joxe Mari Sestorain herritarra nagusitu zen irailaren 24an egin zen pentatloi proban. Donostiako hondartzan igeri egin ondotik, bizikleta hartu eta Ibarrara joan behar izan zuten kirolariek. Handik Berastegirako bidea hartu zuten eta hortik Leitzaraino lasterka joan ziren.



OSASUNA → ZERBITZU BERRIA

Baliteke Leitzaldeko emaginaren zerbitzua herriko kontsultan jartzea

Oraindik ez
dago baieztatua
baina herriko
kontsultari
begira ibili dira

Juana Mari SAIZAR

Herriko medikuaren kontsulta ez da aspaldidanik erabiltzen. Baina orain, irtenbidea izan dezake. Izan ere, Leitzaldera emaginaren zerbitzua ekarri nahi da, eta badirudi gure herriko medikuaren kontsulta izan daitekeela bisi-tak hartzeko tokia. Oraindik ez dakigu zer-

tan gelditu den kontua, baina emagina eta udal ordezkariak ikusten ibiliak dira.

17.059 euro ehiza postuengatik

Aurten enkantean ateratako ehiza postuekin 17.059 euro lortu ditu Udalak, zergak barne. Postu guztiak atera dira enkantera eta orain, eguraldi aproposaren esperoan gelditu dira ehiztariak, mendia ehi-za postuez beteta baitago. Baina hala ere, dauden postuetarako ehiztari gehiegi. Afizio ikaragarria baitago gu-



ARGAZKIAK: JUANA MARI SAIZAR

Neguko hotzaren beldur

Eguraldi onak eta eguzkitsuak aprobetxatu egin ditu jendeak egur lotea etxetara ekartzeko, bideak ere oso lehorrak baitaude. Udalak aukera hori eman zion nahi zuenari, eta goiz eta arratsalde, kamioia egurra hustutzen ibili da han hemenka. Hori argi ikus daiteke, egurra etxe atarietan baitago. Gero motozerrarekin moztu, aizkoraz segidan lehertu eta sutarako egurra prest. Dagoeneko egur pila egin dutenak ere badira, lehenagotik ekarritakoak izango dira, noski.

re herrian, autoak adina eskopeta ba omen dago eta...

Eluseder parajea basoberritzen

Bada denbora, Eluseder aldean zuhaitzen egurra atera zuela Arros-pide enpresak. Eta

orain, paraje hori birpulanatu egin nahi da hainbat zuhaitzekin. Erregabe, hondakinak ezabatu eta hostozabalak landatu nahi dira.

Alustiza eta Ttiki berriz txapeldun

Berandu bada ere, ezin

aipatu gabe utzi berriore, Nazioarteko Artzain Zakur Txapelketan Antonio Alustiza eta Ttiki zakurra txapeldunak izan direla. Lan onaren ondorioa izan da, eta gainera, Bat beste txakurrarekin seigarren izan da Alustiza.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERRA (SAN JOSE) | LESAMA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DORREZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRLUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

TURISMOA

AZPIEGITURAK → ZORTZI HILABETEZ ARIKO DIRA LANEAN

Bidasoaldeko bide berdea egokitze-ko obrak aste honetan hasi dira

800.000 euroko aurrekontua izanen dute lan hauek

TTIPI-TTAPA

800.000 euroko aurrekontuarekin, aste honetan hasi dira Bidasoaldeko bide berdea egokitze-ko lanekin. Gastuaren %65 (520.000 euro) Europar Batasuneko FEDER funtsak finantzatzeko du eta gainerakoa (280.000 euro) Nafarroako Gobernuak.

Partidei dagokienez, garrantzitsuenak N-121-A errepidearen azpitik pasako den lurpeko pasabidea egitea izanen da; 500.000 euroko kostua baitu. Pasabide hori Alkaiaga inguruan egingen da. Tunelaren zola, hango argiak eta bideko seinaleak ere egokitzeko dira. Argia egokitze-ko lanak, zehazki, aste honetan hastekoak dira. Aurreikusitakoaren arabera, obrak zortzi hilabetetan bukatuko dira. Bide berde hori Le-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Lanak bukatzean, Legasatik Hondarribiraino bide berdetik bizikletaz joateko aukera izanen da.

gasatik Enderlatsaraino doa (35 kilometro) Nafarroan. Hala ere, lanak bukatzen direnean, Legasatik Hondarribiraino (Gipuzkoa) joan ahal izanen da bizikletaz.

EUROVELOREN BARNE

Ibilbide hori Eurovelo 1 proiektuaren zati da, Europa alde batetik bertara zeharkatuko duten bizikleten hama-bi ibilbideetatik lehenbizikoa, hain zuzen. Ber-

tizko Produktu Turistikoak Garatzeko Plan Estrategikoaren produktua nagusia da.

Hori izan zuten hizpide, irailaren 30ean Juan Luis Sanchez de Muniain Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak Baztanera egindako bisitan. Eskualdeko agintariek eta turismoaren sektoreko eragileekin bildu zen egun horretan.

Bilera horietatik lehena Bertizko Turismo Partzuergoko arduradunekin egin zuen, eta aipatutako proiektua aztertutako zuten. Kontseilariarekin eta Carlos Erce Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiarekin batera, Bertizko Turismo Partzuergoko hainbat kide hartu zuten parte, tartean, Iza-kun Goñi kudeatzaileak, Antonio Erregere-na presidenteordeak,

Arantza Zubieta idazkariak eta Mari Jose Iparragirre administrazio kontseiluko ordezkariak.

ESKUALDEKO INGURU TURISTIKOETARA BISITA

Egun berean, kontseilariak Irurritako Jauregia Dorretxera ere joan zen, baita Jorge Oteiza Museo Etnografikoa eta bertan dagoen Jabier Zigaren bilduma ikustera ere, eta hemen Baztango udal ordezkariak egin zieten harrera. Ondotik, kontseilariak Arizkongo Señorío de Ursua hotela bisitatu zuen.

BILERAK ALKATEEKIN

Santiago Villares Urdazubiko alkatearekin ere egin zuen bilera kontseilariak. Alkateak bisitariak gidatu zituen Salbatore monasterioa, herriko errota zaharra eta Ikaburuko lezea ikusteko ibilbidean.

Jesus Agerre Zugarramurdi alkatearekin ere elkartu ziren, herriko leku turistikoak diren Sorginen Museoa eta lezea ikusteko.

Okindegia

Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitateak parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxo!

Ordok Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948 63 10 27

UDALA → EKONOMIA KONTUAK

Aitzineko agintaldian asignazioetan izandako «irregulartasunak» zuzentzea erabaki du Udalak

Gai honetan, UPNk hartu duen jarrera salatu du

TTIPI-TTAPA

«Bilduren, Ezkerraren eta Nabai2011ren» aldeko botoekin, eta Nafarroako Toki Administrazioaren Foru Agindua bezela, 2008 eta 2010 artean hautetsien asignazioetan izandako «irregulartasunak» zuzentzeko erabakia hartu zuen Udalak irailaren 20an egindako ez ohiko osoko bilkuran. Nafarroako Administrazio Auzitegi-ko bi erresoluzioen eta Toki Administrazioaren aginduari jarraituz, aitzineko Udalak finkatutako asignazioak berregokituz, guztiei 300 euroko muga paratuz. Bertze muga bat izatera diferentzia Udalak ordaindu beharko lukeelako zehaztu zen muga. Izan ere, Udalaren ustez, «ez da inondik ere bidezkoa aitzineko agintaldian jakinaren gainean egindako irregulartasun jarraitu baten ondorioak baztandarrek gehiago ordaindun konpondu behar izatea».

UDALAK DIOENA

«Ez da inondik ere bidezkoa aitzineko agintaldian jakinaren gainean egindako irregulartasun jarraitu baten ondorioak baztandarrek gehiago ordaindun konpondu behar izatea»

Baztango Udala

Aitzineko agintaldian asignazioen muga zehazterakoan, hiru muga ezarri ziren: 1.200 eurokoa, 800ekoa eta 300ekoa, arduraren arabera. Eta oraingo Udalaren irudiko, «horiez da legezkoa; guztiendako muga bera paratu behar baita». Hala, aitzineko hautetsiek 110.000 euro itzuli beharko dituzte.

UPN-RI KRITIKA

Gaiaren harira, UPNren jarrera salatu du Udalak: «plenotik kanpo eta prentsa ohar bidez, UPNk oraingo udaleko dietak 600 eurotik 300era jausteko proposamena egin du. UPNri oroitarazi behar diogu udal berriaren asignazioak erabakitzeke egin zen osoko bilkuran alde agertu



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Herrietako eskolen besta Oronozen

Baztango herrietako eta Urdazubi-Zugarramurdiko eskolen aurtengo besta Oronozko Guraso Elkartek antolatutakoa izan da. Urriaren 2an egin zen. Goizean, herri inguruan ibilaldia antolatu zen, eskolatik abiatuz Bertizko parkera gan eta handik buelta. Eguraldi ona aprobetxatuz, Bertizko kolunpioetan egonaldia egin zen, gero San Martingo frontoian bazkaria eta segidan dantzaldia Etxalarko Elizagaien ahizpa trikitilari eta panderojolearekin.

zela, eta hortaz, ez dugu proposamen hau ulertzen». Gisa berean, irailko osoko bilkuran gaiaren inguruan eztabaidatzeari «uko egin ziotela» nabarmendu du Udalak.

BEGOÑA SANZBERRORI ERREFERENTZIA

Udalak prentsara bidalitako oharrean dio, «harrigarria egiten zaio la azken bi agintalditan parlamentuan egoteagatik bizi osoko pentsioa izan den pertsonaren ahotik horrelakoak aditu behar izatea; baina batez ere, harrigarria egiten zaigu zezantia eta dietengatik urtero parlamentutik milaka euro hartuko duen bati horrelakoak aditu behar izatea». Datuak ere jakinarazi dituzte: «Begoña Sanzberrok 75.933 euro kobratu ditu urtean, lau urtez 303.732 euro kontseilari lanetan aritzeagatik. Gaur egun parlamentari lane-

tan aritzen direnek 3.300 euro kobratzen dituzten bitartean, Begoñak zezantia delakoa kobratzea erabaki du, hau da, kontseilariaren soldataren %80, 51.634 euro, hain zuzen, hilabetean 4.302 euro. Horretaz aparte, parlamentuan egiten diren bileretara joateagatik 161 euro kobratzen ditu hilabetean, batzaz bertzeko zortzi bileraz, 1.288 euro inguru. Guztira hilabetean 5.590 euro kobratzen dituen parlamentari honek Udala zinegotzietan 300 euro kobratzea eskatzen die».

NABAI-REN OHARRA

Urriaren 3ko plenoan Pello Iriarte NaBaiko zinegotzia irailaren 20ko akta onartzearen kontra azaldu zen. Bilkura hartan, bertzeak bertze, asignazioen gaia landu zen. NaBaik jakinarazi duenez, asignazioen gaia aktan nola jaso zen, ez

zen ados gelditu. «Aktaren arabera, akordioa ahobatez onartu zen». Bere irudiko, «NaBaiko zinegotzia ez zen alkatezaren akordio proposamenaren alde agertu, eta gainera, UPN bilera gela- tik atera egin zen. Hor- taz, ezin da erabakia aho batez hartu zela erran, aktan ageri den bezala». NaBaik akordioaren «baliozkotasuna zalant- ztan» paratu du, nola onartu zen ikusita.

Nafarroa Oinezera autobusa

Baztan Ikastolak igande honetan, urriak 16, Tafallan egingen den Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatu du. Ortziralean, hilak 14, akituko da apuntatzeko epea, pertsonako bortz euro ordainduta. Igan- dean 09:00etan aterako da Ikastolako parketik eta 18:30ean izanen da itzulerako autobusa.

Gierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki tipikoak - Etxeko giroa
Reserva zerbitzu - Telok: 948 582 943
ORNOZ - MUGARI

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA
Andregaiaren erramua +
elizako loreak +
detarlek eginez gero:
KOTXKEKO LOREAK OPARI
NABAI-REN OHARRA
1.445.54 22.00

AZPIEGITURAK → AURREKONTU MURRIZKETA

Lekarozko
Kolegioko eta
komisaria
berriko lanetan
ere izan du
eragina

ТТИПИ-ТТАРА

Nafarroako Gobernuak iragarri dituen aurrekontuaren murrizketek Baztango proiektu bati baino gehiagori eragin diete. Horixe da, hain zuzen, Irurita, Elizondo eta Elbete lotuko litzuzkeen sailhesbideko lanen kasua.

Lan hauek egiteko 8.595.300,87 euro inguruko aurrekontua aurreikusia dago eta Gobernuak obretara aurtien bideratu beharreko 3.831.666,16 euro «blokeatu» egin ditu. Dena den, lanek aitzinera se-

gituko omen dute, bai-
na baliteke gibelera tzea.

Murrizketen eragina somatu duen bertze egitasmoa Lekarozko Kolegio zaharrean egitekoazen proiektua da. Obrahonetan, 4,1 milioi euroko inbertsioa aurreikusiazegoen eta 3 milioi euro 2012ra gibeleralatuak izandira.

Foru Poliziaren Elizondoko komisaria berriko lanei dagokienez, 803.848,71 euroko aurrekontutik 200.000 euro heldu den urtera gibelaratzea erabaki du Gobernuak.

Xorroxin irratia sakelekoan

Euskara hutsean lan egiten duten hamabi irratia, tartean Xorroxin irratia, sakeleko telefonoan entzuteko aplikazioa sortu du Hendaiako Antxe-



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Lasterka eta aizkora apustua Oronozen

Urriaren 2an lasterka eta aizkora apustua jokatu zen Oronozko San Martin futbol-zelaian. Alde batetik, Jexux Zelaia lasterkari eta Bittor Elizagoien aizkolari oronoz-tarrak aritu ziren eta bertez aldetik, NARBARTOKO *Beitxa* eta Oronozko Zamora. 3.000 sos paratu zituzten jokoan, bortz kilometro lasterka egiteko eta bortz kanaerdi-mozteko. Lasterkako saioa arras berdintsu akitu zuten, baina gero, aizkora aban-taila Bittorren aldekoa izan zen. Arratsalde polita izan zen. Jende aunitz hurbildu zen eta herrietako eskolen bestarekin elkartuz, egun ederra atera zen Oronozen.

ta irratia, Berria Beka-
rekin jasotako dirulagun-
tzarekin. Uhinbak du ize-
na aplikazioak eta es-
kaintzen dituen zerbi-
tzuak baliatzeko multi-
media edukiak errepro-
duzitu eta Interneten na-
bigatzeko prestatuta da-
goen sakelekoa behar
da eta horrekin batera,
Internetarako konexioa.
Uhinbak instalatzeko eta
informazio gehiagorako
sartu webgune honetan:
www.uhinbak.eu.

Judo eskola Iruritan

Doneztebeko Erreka
Judo Eskolak judo kla-

seak emanen ditu Iruritan. Oskar Mindegia eta Noelia Ariztia izanen dira irakasleak eta klaseak asteazkenetan izanen dira. 5-6 urtetik aitzinerako jendearendako zabalik dago eskola.

Aroztegiako proiektuari buruz

Aroztegiako proiektuaren sustatzaileak, bere kabuz, konpentsazio batzordearen estatutuak behin betiko onartzea erabaki du. Irailaren 19ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean hala argitaratu zen. Udalak horretarako

legezko epea pasatuta, ez zuelako erantzun. Horregatik egin du zuzenean berak, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2001 Foru Legeak ematen dion eskumena baliatuz.

Liburutegia egun batzuetan itxita

Udalak ohar bidez jakinarazi duenez, aste honetan zenbait egunez itxita egonen da udal liburutegia. Astelehenan, asteartean, ortzegunean eta ortzirealean egonen da itxita eta asteazkenean zabalik.

ANYXIMONS
Resorts

34 km from Rio de Janeiro
All services for your comfort
Call us now! We will be glad to serve you.

Brasília - Itaipava - IG, Eldorado • 048 591 807 • 048 581 855
Email: contato@anyxmons.com • www.anyxmons.com

APARAN, S.A.

ENKIDOLALA eta ZURAK

- Metamina taulak
- Taula hidrotugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate amuntak eta sukaide mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Baimurako mogleak eta osagariak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.



Tel. 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

OSPAKIZUNAK → JO ALA JO TALDEAK ANTOLATUTA

Hamabigarren aldiz Kirikoketa Besta eginen da urriaren 22an Arizkun

Sagardoa egiteaz gain, bazkari herrikoia eta musika izanen dira, bertzeak bertze

TTIPI-TTAPA

Heldu den urriaren 22an hamabigarren edizioa beteko du Kirikoketa Besta. Horren lekuko bihurtuko da berriz Arizkun, Jo ala Jo Kultur Taldeak egun osoko egitaraua antolatu baitu.

11:00ETAN ATE IREKIERA

- Sagardoa eginen da Gamioxarreko Dolaretxean: sagar jotzea, estutzea, zuku dastatzea eta kupelaratzea.
- Lanak akitzean, kirikoketa jotzea eginen da.
- Lanak iraun bitartean, Nafarroako sagardoa dastatu eta taloak eta gaztainak jateko aukera izanen da. Karriketan barna, albokariak, gaiteroak, xulubitariak eta Independantz taldekoak.

14:30EAN

BAZKARI HERRIKOIA

- Txartelak Intzan, Zubipuntan eta Dolaetxean salgai.

17:30EAN GEHIAGO

- Txalaparta, kanta eta dantza. Emanaldi ibiltaria izanen da herrian barna Kalakan, Independantz eta Hutsun taldeekin.

23:00ETAN KONTZERTUAK

- Hiru talderekin kontzertuak: Zurbeltz (perkusioa, kantua, tresna tradizionalak...), Ufestuek (punk/rock, diskoaren aurkezpena) eta Piarres (Euskal Disko Fever 80's).

Amaiur hizpide

Azken aldian, maiz agertzen ari da Amaiur izena hedabideetan. Ez, ordea, Amaiur herriko zerbaitengatik; Ezker



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Zigako Etxe Zuri dendak betiko itxi ditu ateak

Herri ttiki batetik bertze berri txar bat allegatu zaigu. Zigan, bizi guztiko Etxe-Zuriko denda itxi dute. Garaia garai, herrietako zerbitzu ttikiak itota daude gaur egungo gizarteak sortzen dituen merkataritza gune haundiekin. Orain jende aunitzek erranen dugu «ze pena itxi dela, adineko jendearendako edo aurtorik ez duenarendako arras ongi heldu zen». Baina denda ttiki horrek urteetan denen beharra izan du bizirik irauteko, eta denen artean hil dugu. Buruari mila buelta eman ondotik, eta ikaragarritzko penarekin, Mertxek, Julianek eta Julenek, bereziki, erabaki mingarri hau hartu behar izan dute. Esker mile hiruei!

Abertzaleak, Aralarrek, EAK eta Alternatibak osatu duten koalizioari Amaiur izena paratu diotela-ko baizik. Duela ia 500 urte Gaztelak konkistatu, eta Nafarroako Estatuaren galera ekarri zuen azken borrokaren ko-

kalekua izan zelako aukeratu dute izen hori.

Hala ere, izenake eztabaida bat edo bertze eragin du Interneteko zenbait gunetan, eta TTIPI-TTAPAK Amaiurko herriarengana jo du koalizioari izen hori paratzea

zer iruditzen zaien galdetuz. Julian Rekalde alkateari galdetuta, «herriari kalterik ez badio egingen, ongi iruditzen zait» erantzun digu. Eta bere inguruan galdetu duenean ere inork ez omen dio kontrarik erran.

Comercio a punto		MERKATARITZAKO PRESTAKUNTZA-IKASTAROAK		
%100-EKO DIRU-LAGUNTZA DUTEN IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABEENTZAT, 2011KO SEKTOREKO PRESTAKUNTZA PLANAREN ARABERA				
Ikastaroak	Orduak	Datak	Ordutegiak	
LESACA Irakurkua Google-en eta diseinatu ezazu zerortan web-orria	20	10/10/2011-24/10/2011	14:30 - 16:30	
Finantzaiaz:	Antolatzailea:	Batzon-eraklea:		
%100-EKO DIRU-LAGUNTZA DUTEN IKASTAROAK LANGILE ETA LANGABEENTZAT, AUTONOMIA ERKIDEGIKO 2011KO SEKTORE ARTEKO INTZARREN ARABERA				
Ikastaroak	Orduak	Datak	Ordutegiak	
ELIZONDO Blog bat viren sailtzeak	20	08/11/2011-21/11/2011	14:30 - 16:30	
Finantzaiaz:	Antolatzailea:	Batzon-eraklea:		
Online izen-ematea: www.comercioavara.com		Informazioa: informacion@comercioavara.com // 945 739905		

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria arazi taldea

GIZARTEA

GAZTEAK → ELKARRIZKETA GAZTEEN ARTEAN

Lana da Baztan, Bertizarana eta Malerreka-ko gazteen kezka nagusia

261 gazterekin hitz egin da martxotik ekainera

TTIPI-TTAPA

«Gure inguruko gazteon artean gailentzen ari den pasibotasunak» bultzatuta, gazteek gaur egun dituzten «arazo errealek» zein diren jakiteko azterketa edo diagnostikoa egin da Baztan, Bertizarana eta Malerrekan. Hiru eskualdeetako 30 bat lagun elkartu eta guztira 261 gazteri euren kezka nagusia zein den galdetu diete. Aurtengo martxo eta ekaina bitartean egin da galdetuta eta orain bildutakoaren berri eman dute: lana da gehien kezka iturri nagusia.

MALERREKA ETA BERTIZARANA

Malerreka eta Bertizaranako 109 gazteri galdetu zaie zein den euren kezka iturri nagusia. Erantzun bat baino gehiago eman ditu bakoitzak, baina gehien errepikatu dena **lana** izanda: galdetuen %58ri edo bertzela erranda, 109 gazteetatik 63ri, lanak sortzen die kezkarik nagusia. Honen inguruan, «lan gutti dagoela» diote gehienek (24k erantzun dute hori), «eskualdean ez dagoela la-


LANA ETA GERO?
Lanaren ondotik, drogak dira Baztango gazteen kezka iturri nagusia, eta errepresioa Malerreka eta Bertizaranakoena.

nik» ere erran dute (12 erantzun), «gaztea izateagatik diskriminatuak sentitzen direla» ere adierazi dute (10 erantzun), eta «lan mundurako lehen urratsa oso zaila dela» ere bai (7 erantzun). Horiek dira aipatuak.

Errepresioak ere kezkatzen ditu gazteak, galdetuen %41ek hala adierazi dute. Honen barne, «kontrol soziala» (22 erantzun), «polizia kopuruaren gorakada» (15 erantzun), «errepideetako kontrolak» (9 erantzun), «polizia presentzia herrian egunero» (8 erantzun), «ez dute zerbitzurik ematen» (8 erantzun) eta «beldurra erabiltzen dutela» (6 erantzun) erantzun dute gehienek.

Aisialdiak ere ezinezona sortzen die, galdetuen %31ri behintzat bai, eta honetan batez ere «gazteek elkartzeko gurek ez dutela» azpimarratu dute gehienek (20 erantzun). «Herrian jurgarik ez dagoela» pentsatzen duenik ere bada (7 erantzun).

Indibidualismoak ere kezkatzen ditu elkarrizketatuen %29. Honetan ze-



ra diote gazte gehienek: «ez dugut aldeizaerarik», «gauzak antolatzeko gogorik ez», «etxean gero eta denbora gehiago», «pasibotasuna eta hezkuntzatik dator arazoa».

Euskara ere kezka iturri nagusien artean dago, galdetuen %26k hala iritzi dute. **Etxebizitza** ere aipatu dute elkarrizketatuen %25ek.

Beraz, kezka aipagarrienak hauek dira Malerreka eta Bertizaranako: lana, errepresioa, aisialdia, indibidualismoa, euskara eta etxebizitza.

BAZTAN

Baztango ia herri gehienetan 152 gazte elkarrizketatu dira eta hemen ere **lana** da ezinezona nagusia sortzen duena. Erantzun bat baino gehiago eman ditu gazte bakoitzak eta kezka nagusiak lana (%49), drogak (%33), errepresioa (%30), politika (%30), etxebizitza (%22), hezkuntza (%21), eskuara (%20), indibidualismoa (%18) eta proiektu txiki-

tzaileak (%14) direla ikusi da.

Lanaren inguruko kezka nagusia «bertan lanik ez egotea» da gehienentzat –39 erantzun–. «Baldintza kaxkarrak» ere aipatu dituzte (16 erantzun), eta «ikasi edo gustuko duenarekin zerikusirik duen lanik ez» dagoela ere aipatu dute (8 erantzun). «Nekazaritza indartzea beharrezkoa» dela erran dute batzuek (6 erantzun) eta «Iruñeko zentralizazioak» kezkatzen dituenik ere bada (5 erantzun).

Drogak ere kezkatzen ditu gazteak, eta batez ere, «gazteen kontsumo arduragabea» (18 erantzun), «ondorioekiko kontzientziarazioa» (18 erantzun) eta «gero eta kontsumitzaile gazteagoa eta zabalagoa izateak» (16 erantzun) eragiten die ezinezona. «Kontsumoarekiko heziketa eta informazio beharra» (8 erantzun) eta «gaia tabua dela» (7 erantzun) pentsatzen duenik ere bada Baztanen.

Errepresioa da Baztango hirugarren kezka iturri nagusia. Honen inguruan, «presentzia polizial itogarriak» kezkatzen ditu batez ere (21 erantzun), baita «errepideko edo politikoak diren kontrol gehiegi» (19 erantzun) izateak ere. «Izua sartuz gazteria geldiarazi nahi dutela» ere erran dute 9 lagunek eta «errepresio politikoaren biktima» direla ere badiote bertz horrenbertzek.

Politika kontuetan «udal kudeaketa kaxkarrak» eta «demokrazia eza» dira gazteei batez ere kezka sortzen dietenak, bakoitzean 24na erantzun jaso dira. «Baztarreak indartu» behar direla eta «Baztango sosa Elizondon zentralizatzen dela» ere aipatu dute. 7 eta 5 erantzun izan dira, hurrenez hurren.

Eta orain, gazteak zerkezkatzen dituen bilduta eta «arazo asko gazte izateagatik soilik direla ikusita», arazoei gazte guztien artean aurre egi- tea izanen da erronka.

ZUGARRAMURDI

SORGIN EHIZA → ANTZERKIA

Sorgin ehiza gogoratuz ikuskitzen ederra eskaini dute herritarrek Hondarribian

Duela 400 urte
gisako afera
gertatu zen
Gipuzkoako
herri horretan

Koro eta Margari

Gan den urriaren 1eko gauean, herriko antzerki taldeak emalaldia eskaini zuen Hondarribian. Herri horretan ere, duela 400 urte sorgin ehiza afera bat gertatu zen, eta gaur egungo herritarrek orduan kaltetuak izan ziren emakumei omenaldia egin nahi izan diote.

Zugarramurditik 24 heldu eta sei haur joan ziren, eta Arma Plazan oren bateko ikuskizun ederra eskaini zuten, musika, koreografia,

historia, umorea eta sua erabiliz.

Ikastaroak martxan

Udazkenean, onddoak eta usoak agertzen diren bezala, ikastaroak ere agertzen dira. Momentu honetan haurrendako eskaintzen direnak hauek dira: Gu-raso Elkarteak trikitixa eta pandero (asteartetan) ikastaroa antolatuta du, baita euskal dantzena (ortzegunetan) eta ingelesekoa (eguna zehaztu gabe dago oraindik) ere. Eta berrikuntza gisa, aurten kenpo-kai ikastaroa ere antolatuta da. Ortziraletan emanen da Urdazubiko eskolan, 19:00etatik 20:00etara. Izena emateko telefono honetara deitu behar da: 679 328162 (Ana).



ARGAZKIA: JUAN CARLOS JIMENEZ

Herritarrek egindako saioarekin gustura gelditu ziren ikustera hurbildutakoak.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Komun publikoak Azketa aldean

Azketako aldean komun publikoak jarri dituzte. Tokirik ez zegoela iduri zuen, baina mendian sartuak egin dira, kanpotik harriz inguratutik, eta xarmanki gelditu dira.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merke langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratuetarako laguntzak
- Enpresa berri ezabatuaren sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Etiberritasun eta jarduera espedienteak
- Bidegarritasun planak eta sumakortutak

artekari@artekari.com

LEZAKA: Sibilis, 77. behe - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURLEATA: La Vito, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

MONTXO OSTATU

Dantzaritza 2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - URDABAI
Egunero irekia 10.30etik 02.30era

SENPERE

KULTURA → HERIOTZA

Patxi Arotzarena hazpandar musikariaren heriotzak Senpereko musikazaleak hunki ditu

43 urterekin zendu da bihotzekoak jota

Franck DOLOSOR

Dolua berriz ere Hazparnen eta euskal musikaren munduan. Patxi Arotzarena musikaria bihotzekoak jota bat batean hil zen 43 urtetan urriaren 3an bere lantokian, Hazparneko San Josep ikastegian. 2008az geroz Hazparneko auzapezordea zen eta kulturaz eta euskaraz arduratzen zen bereziki.

Heritik kanpo ere biziki ezaguna zen Txakun folk-rock taldeko sortzailetarik izan baitzen 90ko hamarkada hastapenean. Lagunen laguna eta artista aitzindaria biziki ezaguna zen Senperen ere, behin baino gehiago- tian jo baitzuen gure bestetan eta bai Herri Urratsen ere. Urte batez, ikas-

tolen aldeko bestaren musika ere apailatu zuen bere lagunekin. Garai horietan gaitzeko arrakasta izan zuen Txakun taldeak Ipar Euskal Herri osoan *Zapatak ari ziren dantzan* eta *Txi-txi bai Buana* bezalako kantu umoretsuekin. Senperen berean, segitzaile ainitz izan du Txakun taldeak. Eta ez segitzaileak bakarrik parte hartzaileak ere bai: Christophe Amorena eskusoinularia Txakun taldeko kide izan baitzen 1995tik 97rat. Amorenak biziki ontsa ezagutu zuen Patxi zena bi urtez kontzertu andana eskaini baitzuten herriz herri elgarrekin.

Amorenak TTPI-TTAPARI erran dioenez, go-goan ditu garai horiek 15 urte baitzituen orduan eta talde biziki famatua baitzen Txakun. Orain, Ekintza taldeko eskusoinularia da baina lotura hertsia du Txakuneko lagunekin. 2007an, taulen

gainerat hupatu ziren berriz elgarrekin Hazparneko ikastolaren aldeko besta batean. Bi urte geroago berriz elkartu ziren Haitiren aldeko kontzertu batean. Christophe Amorenaren ustez, «gauzak arrunt aldatu dira orain Patxiaren heriotzarekin Txakun bera hil baita betiko». Ezinezkoa

Patxi Arotzarena.



ikusten du berriz jotzea. Amorenak dio ez duela sekulan ikusi Arotzarenaren ehorzketetan bezainbat jende. Azken agur horretan, lagun musikariek ez zuten indarrik izan musikarik jotzeko baina *Agur Jaunak* kantatu zio-

ten ehunka lagun lagunen laguntzarekin. Ondotik, denek gogoratu zuten Patxi gizon idekia, kultura guztien aldekoa, eta bere herriari eta ikastegiari biziki atxikia zela. Doluminak familia eta laguneri, ez adiorik...



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Pilota plaza

Jan haundiak egiten ditu egun hauetan Herriko Etxeak. Karrika Nagusiko pilota plaza osoki berritzen ari dira eta ondoko asteetan itxura arrunt berria erakutsiko du hainbertze pilotari eta xapeldun ikusi dituen plazak.



TURISMOA → TURISMO BULEGOAK ANTOLATUTA

Andra Mari Abesbatzak kontzertua eskainiko du asteburuko Uso Bestan

Larunbatean mintzaldia izanen da eta igandean egun osoko egitaraua

TTIPI-TTAPA

Aste hondar hone-tan, urriak 15 eta 16, Uso Besta iraganen da. Duela urte bat turismo bulegoak besta hau antolatzen du usotegietako ihizia ospatzeko.

Larunbatean, urriak 15, Lur Berri gelan konferentzia bat izanen da Jacques Luquet-ek animaturik, 20:00etik landa.

Igandean, berriz, besta 11:00etan hasiko da usotegiaren bisitarekin (inskribatu behar da turismo bulegoan) eta denbora berean plazan pilota partida bat izanen da. 11:30ean kofradien desfilea izanen da, eta eguerdian Zazpiak Bat taldeak dantzatuko du. 13:00etatik landa bazkaria izanen da ja-tetxeetan, eta usoa pro-posatua izanen da.

Arratsaldean, 17:30-ean Errenteriako Andra Mari Abesbatza arrakastatsuak kontzertu bat emanen du. Sarre-rak aitzinetik erosten ahalko dira 12 eurotan, hainbat tokitan: Sara, Azkaine, Senpere, Ain-hoa, Donibane Lohizu-ne, Urruña, Ziburu, Hen-daia eta Getariko turis-mo bulegoetan, baita Baiona, Biarritze eta An-gelukoetan ere. Tokiak egunean berean ere sal-duko dira, 15 eurotan.

Etxeko lanentzat laguntza

Duela bizpahiru ur-tetik, Herriko Etxeak etxeko lanentzat lagun-tza sistema bat plantan eman du haurzaindegi-ko haurrentzat.

Zazpi emazte bolun-tario heldu dira 17:00-etatik 18:00etara, haur-tzaindegira haurrak la-guntzeko. Aldi bakoit-zean, bi etortzen dira, bat frantsesa egiteko eta bertzea euskara egi-teko. Laguntza hori as-telehen, astearte eta os-tegunetan proposatua



ARGAZKIA: TURISMO BULEGOA

Mendi bizikleta ibilaldi arrakastatsua

Irailaren 25ean izan zen 10. mendi bizikleta ibilaldiak arrakasta izan zuen. 166 pertsonen parte hartu zuten, 20 batek 16 kilometroko ibilaldian eta 140k 38 ki-lometrokoan. Eguna giro goxo batean pasatu zen, eguzkia lagun izan zuten, eta parte hartzaileak zein antolatzaileak arras kontent gelditu ziren. Turismo bu-legoak laguntzaileak eta Pipo Garbiso eskertu nahi izan ditu, horieri esker de-na ongi pasatu baita.

da. Urriaren 3tik landa hasi da.

Kirol emaitzak

Sarako eskubaloit al-dearentzat sasoina joan den irailaren 24an

hasi da Urruñaren kon-tra, baina Urtxintxek gal-du egin zuten 24-14. Urriaren 1ean Senpere-ko taldearen aurka ari-tu ziren eta 17-10 galdu egin zuten, baina defen-

tza azkar bat erakutsiz.

Errugbilariek, aldiz, sasoina ongi hasi dute garaipen polit batekin. 23-3 irabazi zuten Sa-int Julien en Born-en kontra.

Iñaki Alzuyet margoak
Pinturas, grabatutxoak, etxeko tresnak, fitxak, etxeko tresnak
Dekorazioak, irudiak, irudiak
Lanetan eta proiektuetan laguntza. Plazaren
Hartze eta egutza aldatzeko erabilgarria da.
Hiri-Ttapi-aren - Landak Arzob - 31771 UNGAZURI
Tel.: 659 862 417 - pinturasalzuyet@yahoo.es

CAFE DE LA MAIRIE
BARRIO DE LA MAIRIE
HARRIEN BARRIOA
HARRIEN BARRIOA
HARRIEN BARRIOA

ANSONEA
Eguneko menua
Menu vegetarianoa
Menu makrobiotikoa
Plater konbinatuak
Bakarrak - Errezeak
Tel.: 948 630 054
BERRA 2011.10.13

SOULE
HARRIEN BARRIOA
HARRIEN BARRIOA
HARRIEN BARRIOA
HARRIEN BARRIOA

PAGOLA EMBUTIDOS
artesanos desde 1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

EZKONTZAK

Joseba Irigoien Urtxegi eta **Eider Altxu Bereau**, Lesakakoa eta Ituren-
goa, irailaren 17an Lesakan.

Iker Domingez Moreno eta **Ainhoa Elgorriaga Tombo**, Hondarribikoa eta
Berakoa, urriaren 3an Lesakan.

Gorka Izquierdo Durana eta **Miren Jo-
sune Iguzkiagirre Iturbide**, Gasteiz-
koa eta Igantzikoa, irailaren 17an Igan-
tzin.

Cyril Lâge eta **Gwenaëlle Le Billant**,
irailaren 17an Saran.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 te-
lefonora deitu beharko du.*

SORTZEAK

Maddi Astibia Zamarbide, Leitzakoa,
irailaren 27an.

Irati Oiaregi Sagaseta, Nartartekoa,
irailaren 23an.

Aritz Larburu Elizalde, Etxalarkoa, irai-
laren 16an.

Nahia Portu Zelaieta, Sunbillakoa, irai-
laren 11n.

Unax Urtxegi Rodrigo, Igantzikoa, irai-
laren 29an.

Jare Maia Arozena, Lesakakoa, urria-
ren 5ean.

Ylenia Bendoiro Telletxea, Zubieta-
koa, urriaren 2an.

*Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen
atalean agertzea nahi badu, 948 635458 tele-
fonora deitu beharko du.*

HERIOTZAK

Maria Luisa Aizpuru Latasa, Sunbi-
llakoa, irailaren 26an.

Consuelo Gillenea Beldarrain, Elizon-
doka, irailaren 20an, 86 urte.

Maria Luisa Ariztia Etxenike, Elbete-
koa, irailaren 25ean, 93 urte.

Segundo Verdu Suhas, Urdazubikoa,
irailaren 26an, 87 urte.

**Maria Francisca Arretxea Sanzbe-
rro**, Etxalarkoa, urriaren 1ean, 85 urte.

Gregorio Ceballos Barcena, Leitz-
akoa, urriaren 3an, 90 urte.

M^a Angela Ameztoi Danboriena, Etxa-
larkoa, urriaren 5ean, 61 urte.



Lino INDAKOTXEA ARIZTEGI

Zubietan, 2009ko urriaren 20an

II. URTEURRENA

*Udazkeneko hostoen antzera joan zinen
eta gogorra da onartzea
gehiago ez zaitugula ikusiko,
baina bizitzen garen artean,
ez zaitugu ahaztuko.*

ASKO MAITE ZAITUGU

IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA



Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran, 2007ko urriaren 16an

IV. URTEURRENA

*Seguru urte aunitz pasako direla
eta hau laugarrena bertzerik ez dela izanen.
Baina urteak kontatu ahal izateak berak
zurekin ahazten ez garela adierazten du.*

ZURE FAMILIA

*Rekordatorioak
egiten ditugu*

ttipi-ttapa

Andueza, 12
ETXALAR | 948635458

FERIAK

ELIZONDO Urriak 28 - 29



ALMACO BAZTAN GRUP GATTIA

KOMUNERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA
ZERAMIKA/PARKETA
BURDINDEGIALANERAKO ARROPA
EKONOMIKAK/ESTUFAK
ERAINKUNTZARAKO MATERIALA
MAKINARIAREN ALOKAIKUA

atorri ezagutzera !!



Errepide nagusia, Elizondo

Tel. 948 580 104 Fax. 948 581 857



ARKUPE
Gozotegia - Txokolategia

Txokolatea, urtarekin egina,
almendrazkoa,
beltza eta xuria.
Tabletak, bonboiak, trufak,
Txokolate konfitatua.

Tartak, etxeko izaizkiak, pastelak
pastak, miniaturak, bolloak

KAFETEGIA

Elizondo - Tlf. 948 452 393
Iruña - Tlf. 948 452 021 - 948 580 059
info@arkupegozotegia.com
www.arkupegozotegia.com



ZERGALAN
aholkularitza

ZERBITZU FISKALAK:

- Aholkularitza fiskala
- Zerga agiriak
- Zergak aldatzea
- BEZ atzerapena
- Zergakotze zergak
- Zuzen erregistratuaren zergak kudeatzea

KONTABILITATE ZERBITZUAK:

- Kontabilitatearen aholkularitza
- Enpresen enketak
- Kontabilitatearen errealitate
- Aholkularitza pertsonalak
- Merkataritza-erregistratuaren erroko kontuen kudeaketa

BERTZE ZERBITZUAK:

- Zuzenagaitza errealitate
- Zergakotzearen errealitate
- Lan eta enpresaren buruaren errealitate
- Aholkularitza pertsonalak
- Langabezia kudeaketa
- Zerga - laguntzak
- Negozioaren indargarritasunaren errealitate

Baztanberri plaza, 6
11700 Elizondo
T. 948 581 300
F. 948 580 048

Eliza kalea, 22
11740 DOMESTIBE Iruña
Tlf. 948 452 393
Fax. 948 451 304

www.zergalan.es

ELIZONDOKO FERIAK

Urtetik urtera azienda gehiagorekin sendotzen ari da udazkeneko feria

Azken bizpahiru urteetan inoiz baino itxura hobea hartu du Elizondoko Udazkeneko Feriak, azienda kopuruari dagokionez. Gan den urtean, Altsasun feriarik ez zela egin baliatuz, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza poltsan gelditutakoa aprobetxatu eta Burgete eta Jaka arrazako behor eta zaldiak eraman ziren plazara, baina baita behiak, euskal zerriak, astoak, ardiak eta bertze zenbait azienda ere ikusi ziren Merkatuko Plazan. Aurten ere azienda aunitz espero dituztela aipatu digu **Xabi Torres** Elizondoko alkateak, «ahal bezainbertze eta ahal haina klasteko azienda ekartzeko asmoa dugu, Baztangoa. Garraioa ordaintzen zaie abeltzainei, aziendak plazara eramateko egiten duten esfortzua saritzeko nolabait». Dena den, lehengo moduan aziendak plazaraino oinez eramatea ere bultzatzen ari dira, kamioietan eraman ordez.

Feria girotzeko egitarau zabala prestatu dute urriaren 28 eta 29rako. Ortzilerian Laxoa Plazan makineria erakusketa ere egingen da. **Maialen Lujanbio** eta **Xebastian Lizaso** ariko dira bertsoan eguerditik aitzinera. Gan den urtean, obren ondorioz, postu batzuk Jaime Urrutiatik eta plazatik urrundu behar izan ziren, baina aurten, lanak akituta, berriz ere inguru hori dena beteko dute.



ETXEBIZITZA LIBREAK

J B Iturria
CONSTRUCCIONES

T. 948 580 304
www.jbiturria.com
Mendinueta 6, behea ELIZONDO

ELIZONDOko Baztanberri Plazan

Mailegu kualifikatuak eta
irabazien arabera
dirulaguntzak

3 logela | 2 bainugela
garajea | trastelekua
igogailua

160.000 €
%4 BEZ bame



Arratsaldean pilota jaialdi handia

Arratsaldeko 17:00 aldera, profesionalen arteko pilota partida ikusgarriak izanen dira pilotalekuan, ASPEn eskutik. Hau idazterakoan, oraindik erabat zehaztu gabe dago jaialdian parte hartuko dutenak, baina punta-puntako pilotariak izanen dira beti ere. Bai ortziralean, baita larunbatean ere, egun osoan merkatua izanen da Elizondoko karriketan barna. Hain zuzen, postuen salmenta izaten da Elizondoko herriaren urteko diru-sarrera garrantzitsuenetako bat. Metro lineala 18 euro terdian saltzen da eta gan den urtean «berrehun postu baino gehiago izanen ziren» aipatu digu alkateak, baina garrantzitsuena, «Baztango abeltzainek gero eta gehiago lantzen duten kategoriako azien-dak erakustea da».



Argazkiak: ONDIKOL

arteka
arkitektoa - diseñatzailea

Tel: 948 580 225
Fax: 948 452 434
info@artekabiztarr.com
www.artekabiztarr.com

Proy: Dr. Iñaki T. L.A.
31700 Elizondo (Navarra)

DATUCELAY

Ordenagailu bidezko direkzio zuzenketak
Mekanika • Elektrotasak
Gaien aztertzailea • ITVrako prestakuntza

IBILGAILU KLASE GUZTIEN KONPONKETA

Santiago, 90 • ELIZONDO • Tel. 948 580 225

esarte

Santiago 83 B bajo
31700 Elizondo
T 948 581 907
www.precocinadosesarte.com

Osagari mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak

Albaitaritza
www.albaitaritza.com
Tlfno.: 948 580 980
Materiaria
Hazia
Botika

Albaitack
Zaldi eta zaldi-zaleentzako produktuak
www.albaitack.com
Tlfno.: 948 506 169

Albalkide
www.albalkide.com
Tlfno.: 902 169 169
Albaitari zerbitzua



Francis URRUTIA
Elizondoko Lur dantzalekukoa

«Krisiak badu zerikusia, baina larunbatetan ateratzeko ohitura galtzen ari da gazteria»

Hasi berria da denboraldia Elizondoko Lur dantzalekuan eta karrikan bertzelako solasak aditu badira ere, kontzertuekin eta dantzalekuarekin segituko dute sasoi honetan. **Francis Urrutia** nagusiak aipatu digunez, «ez dakit nondik atera den buila hori, baina aurtan berdin segituko dugu. Normalean irail erditsuan irekitzen dugu eta aurtan mantsoago egin dugu, urriko lehen egunean. Egia da joan den denboraldia arras nekatuak akitu genuela, segitzeko gogo guttirik, batez ere larunbat goizaldean egiten diren gehiegikeriekin, komunak denak hiru aldiz aldatu behar izan genituen, debalde paratzen dugun autobusarekin ere ez dugu karrerarik ateratzen eta orain biltzekoak gara, seguridadea paratu edo zerbait kobratu edo zer egin erabakitzeko. Gan den urtean bizpahiru aldiz foruzainei deitu behar izan zieten, jarlekuak hautsi, gauzak kanpora bota... Ez dakit zer gertatzen den, baina desastre bat da! Hezkuntza arazoa dela iruditzen zait».

Arazorik handienetakoa bat hori da, baina baita «jendea arras mantso eta pasatua» etortzen dela, Urrutiaren erranetan. «Ostatuekin 03:00etan itxiko zutela gelditu ginen, baina ordu horretan argia pizten dute, 03:30ean itxi eta jendea honat etorri orduko 04:00ak dira. Ordu horretan gehienak ordaindu gabe sartu nahi dute eta gan den urtean balantzea ezin eginez akitu genuen. Aurtan segituko dugu proban, baina ez du gogorik ematen irekitzeko ere!».

Zortzigarren denboraldia

Lur aretoa 2004ko azaroaren 20ean ireki zen lehen aldiz, nagusiak aipatu digunez. «Oraino Bordatxo ere hor zen, baina ongi hasi ginen, lehenbiziko urtean ongi funtzionatu zuen, ibili zen jendea eta kontzertuetan ere erantzuten zuen». Baina geroztik gauzak aldatu direla aipatu digu Francisek. «Larunbat arratsetan ateratzeko ohitura galtzen ari da gazteria, krisiak ere eragiten du, gazte aunitz langabezia dago... Orain 7-8 urte ez zen hainbertze Internet eta halako kontu». Langile aldetik, «egun potente batean 24 langile behar izaten ditugu eta normalean 15-16 lagun eta horien soldatak ere ordaindu behar dira, nahiz eta jende guti sartu».

Zazpi urte hauetan, dantzaleku eta kontzertu egunetaz gain, bertso txapelketaren finalak, kantu lehiaketak, pailazoen emanaldi eta bertze hainbat ekitaldi diren lekuko izan da Lur aretoa. «Uste dut —dio Urrutia— nahiko ongi portatu gara, euskal kulturarekin zerikusia duten ekitaldi horietan aretoa debalde uzten dugulako, deus kobratu gabe». Dantzalekuari dagokionez ere, Lurreko nagusiaren ustez, «Gipuzkoa eta Bizkaialdean erreferenteak gara, hemen izaten den euskal giroa ez dute han topatzen eta hori estimatzen dute, baina badirudi bertako jendeak ez duela hori kontuan hartzen». Bere garaian, talde ez hain ezagunen formatuetikiko kontzertuekin ere apostu egin zuen Lur aretoa, eta bigarren solairuan doan egiten ziren. «Ortiziraletan egiten genuen eta lehenbiziko urte erdian arras ongi joan zen, talde berriak mugitzen genituen, baina gero jendea ez etortzen hasi zen eta utzi genuen».

Kontzertu indartsuak

Kontuak kontu, hasiak dira denboraldi berriarekin eta kontzertu indartsuak ekartzen saiatuko dira. «Urriaren 22an Zopilotes Chirriaos, garai bateko Huajoloteseko musikariekin eta gero azaroan Sutagarrek bere disko berria aurkeztuko du hemen, seguruenik Esne Beltza taldea ere etorriko da abenduaren 3an eta ekainean Komak suspenditu egin zuen eta berriz ere etorriko da, baina ez dakigu xuxen zein egunetan. Oraingo horiek ditugu burutan, gero gerokoak». Bertze talde batzuekin mintzatzen ari dira, «baina oraino ez dugu deus bete. Beldurraekin hasi gara, lehengo urtean nahiko mottel akitu genuen».



Francis Urrutia, Lur dantzalekuaren atarian.

lako... Tigres del Nortek mini-bira bat egitekoa du eta etorri nahi zuten Lurrera, baina ezin dugu ordaindu haiek eskatzen duten katxea, jendeak ez badu erantzuten eta guttiago! Arrisku handia da! Gan den urtean alde guztietan bete egiten zuen Txarrena ekarri genuen 7.000 euro ordainduta eta 107 pertsona sartu ziren, pentsa eza zu zer kolpea hartu genuen! Eman buelta horrerik!». Izan ere, kontzertu bat antolatzeak jendeak uste duena baino lan handiagoa dela aipatu digu Urrutiak: «Behar duzu mugitu, propaganda egin, karteleria, sarrerak bereizi lruñera... eta gero!».

